



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 6a

152. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela Hezkuntza Departamentuak Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntza Programak arautuko dituen foru aginduaren zirriborroa erretiratzea. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baitu Hazte Oir elkarteak sustatutako idazkia. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu migratzaileenganako eta errefuxiatuenganako harrera-politika integratzaileak garatzea babesten duela. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin. Lanpostu hutsa esleitzea eta izendapena (4. or.).
- Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (5. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela Hezkuntza Departamentuak Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntza Programak arautuko dituen foru aginduaren zirriborroa erretiratzea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza –bereziki, ingelesarena– zokoratu behar ez den aukera bat da, eta egungo beharriari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak ezartzen eta hobetzen jarraitu beharra dago.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, ikastetxeek beren ikasleen arabera ezaugarri ezberdinak izateak ezin du berekin ekarri ekintza diskriminatzaileak, baizik eta giza baliabideak eta baliabide materialak areagotzea, ekitatean eta aukera-berdintasunean sakontzen jarraitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, gisa horretako programak ezartzeak Nafarroako hezkuntzarako duen garrantzia ikusita, Departamentuak bere erantzukizunei aurre egiten jarraitu behar du, horiek alde batera utzi gabe, programa horien ezarpena baimentzeko, antolatzeko eta erregelamendu bidez planifikatzeko. Halaber, ikastetxe horietako zuzendaritza-taldeei eta horietara doazen ikasleen gurasoei galdetu egin behar die, erabaki kaltegarri bat hartu aitzin, beren iritzia eta irizpideak ezagutzeko”

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baitu Hazte Oir elkarteak sustatutako idazkia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du Hazte Oir elkarteak sustatutako idazkia, bai eta errespetuaren, berdintasunaren eta askatasunaren aurkako ideiak transmititzen dituen eta, hezkuntza afektibo-sexualari eta LGTBI+ eskubide-berdintasunari dagokienez, hezkuntza-erkidegoa hertsatzea xede duen beste edozein ekimen ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio hartu beharreko neurriak har

ditzan ikastetxeek gisa horretako materialak baztertu eta hezkuntza-erkidegoan banatu ez ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du sexu-bestelakotasunarekiko errespetua aitortzen eta sustatzen duen hezkuntza afektibo-sexualarekiko bere konpromisoa, oraintsu onetsitako sexu-eta ugalketa-osasunari buruzko dekretuaren ildotik, bai eta LGTBI+ pertsonen eskubide-berdintasunerako Foru Legea laster onesteko lan egiten jarraitzearekikoa ere.

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu migratzaileenganako eta errefuxiatuenganako harrera-politika integratzaileak garatzea babesten duela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Bere babesa ematea migratzaileenganako eta errefuxiatuenganako harrera-politika integratzaileak garatzeari.

2. Bat egite hori dela-eta eginen den manifestazioarekin, zeina abenduaren 17an eginen baita,

12:00etan, Gazteluko Plazatik abiatuta, “Migratzaileak eta errefuxiatuak, ongi etorri” goiburuarekin.

3. Adierazpen hau manifestazioaren antolatzailerik igortzea.

4. Herritarrei manifestazio horretan parte har dezaten dei egitea.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko eus-kara mailarekin.

Lanpostu hutsa esleitzea eta izendapena

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu bat betetzeko lekualdatze lehiaketa bukatu da. Lehiaketa hori Kontuen Ganberako lehendakariaren 2016ko maiatzaren 9ko ebazpenaren bidez onetsi eta 2016ko maiatzaren 27ko 102. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ikusita kalifikazio-epaimahaiak azaroaren 22an igorri duen zerrenda, azterketa gainditu duten izangaiak lortutako puntuazioa dakarrena –2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta–, eta deialdiaren 8. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, lehendakaritza honek, bere ahalmenak eta bere eskumenak erabiliz, ERABAKI DU:

Lehenengoa. Fernando Erburu Elizondo jaunari esleitzea deitutako lanpostu hutsa eta Nafarroako

roako Kontuen Ganberarako funtzionario izendatzea, deitutako lekualdatze lehiaketan puntu gehien lortu duen hautagaia izan baita.

Bigarrena. Ezartzea, deialdiaren 9. oinarrian ezarritakoarekin bat, interesdunak izendapen erabakia jakinarazi ondoko 10 egun naturaleko epean hartu beharko duela lanpostuaren jabetza. Aipaturako epean jabetza hartzen ez badu, lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta interesdunari jakinaraz diezaion agintzea, aurreko idatz-zatian aipaturiko ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukia jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
 - II. Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (8. or.).
 - III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (10. or.).
 - III.1. Udalaren 2015eko aurrekontu-exekuzioaren egoera-orria (10. or.).
 - III.2. 2015eko aurrekontu-emaiza (11. or.).
 - III.3. 2015eko emaitza ekonomikoa (11. or.).
 - III.4. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2015eko abenduaren 31n. (12. or.).
 - III.5. Udalaren egoerari buruzko balantzea 2015eko abenduaren 31n (13. or.).
 - IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (14. or.).
 - IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa (14. or.).
 - IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (16. or.).
 - IV.3. Alderdi orokorrak (18. or.).
 - IV.4. Udaleko langileak (19. or.).
 - IV.5. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan. (21. or.).
 - IV.6. Zorraren finantza-zama (24. or.).
 - IV.7. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (24. or.).
 - IV.8. Inbertsioak (25. or.).
 - IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak. Udal zergak. (28. or.).
 - IV.10. Tasak eta bestelako diru-sarrerak (29. or.).
 - IV.11. Transferentzien bidezko diru-sarrerak (31. or.).
 - IV.12. Ondare bidezko diru-sarrerak (32. or.).
 - IV.13. Inbertsio errealak besterentzean ondoriozko diru-sarrerak (33. or.).
 - IV.14. Ibilgetua. Inbentarioa (33. or.).
 - IV.15. Itxitako aurrekontuetako zordunak eta hartzekodunak (34. or.).
 - IV.16. Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak (34. or.).
 - IV.17. Zorra (35. or.).
 - IV.18. Finantza-kontuak (36. or.).
 - IV.19. Hirigintza (37. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (40. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (41. or.).

I. SARRERA

2013ko azaroaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Leringo Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezala, 2012ko eta 2013ko ekitaldiei buruzkoa.

2014ko irailaren 1ean, Parlamentuko Eledunen Batzarrak, parlamentu-talde beraren ekime-
nez, eskatu zuen fiskalizazio hori 2007tik hasi eta gaur artekoa izan zedin.

Udal agintari berriek behin eta berriz erakutsi duten interesa dela eta, Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean ezarritakoari eta 2016rako daukan jarduketa-programari jarraituz, Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek, funtsean, aurrekontuaren likidazio-espeditateak osatzen ditu, horren barne honako hauek direla: aurrekontu-emaizta, egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko espeditateak, emaitza ekonomikoarekin, eta kontuen balantzea eta eranskinak –diruzaintzaren eta zorraren egoera-orriak, bestak beste–.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Legea betetzeari buruzko fiskalizazio hori auditatutakoaren aurrekoak diren ekitaldietan egindako eragiketa batzuetara ere zabaldu da, Udalaren egungo gobernu-taldearen eskariei eta Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatutako aldiei erreparatuta.

2014ko ekitaldiko kontu orokorra ez da auditatu. Ekitaldi horri buruzko datuak, txostenean zehar adierazitakoak, informazio-hutsez ematen dira.

Leringo Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Leringo udalerriak 97,96 Km²ko azalera du. 2015eko urtarrilaren 1ean, 1.665 biztanle zituen.

Udalaren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu garrantzitsuenak honako hauek ziren 2015eko ekitaldiaren itxieran:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Lanpostuak (plantilla)
Udala	1.602.592	1.517.772	5

Udalak ez du tresna-izaerako enterik sortu. Lerinek ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Jurrmendiko Mankomunitatea, uraren eta hiri hondakin solidoen zerbitzuak emateko.
- Allo, Arellano, Arronitz, Deikaztelu eta Leringo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Amado Alonso Fundazioa.
- Lizarraldeko Turismo Partzuergoa.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira.

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontrat
Zerbitzu administratibo orokorrak	X		
Argiteria publikoa	X		X
Hilerria	X		X
Herriguneetarako sarbidea, zolaketa	X		
Ur-hornidura		X	
Hiri-hondakinak		X	
Kale garbiketa	X		
Musika eskola			X
Gizarte zerbitzuak		X	
0-3 urteko haurren ikastetxea			X
Turismoa eta eskualdearen garapena		X	
Kirola			X
Hirigintza	X		X
Gazteentzako etxabea	X		
Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa		X	

Entitatearen aurrekontua 2014ko abenduaren 1eko Osoko Bilkurak onetsi zuen. Kontu orokorra 2016ko abuztuaren hiruan onetsi du Osoko Bilkurak. .

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat ematen dugu. Azkenik, laugarrenean, iritzian eraginik ez duten oharpenak eta udalaren barne-antolamendua eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Azterketa-lana 2016ko maiatzetik ekainera egin zuen hiru auditoriako teknikariek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen laguntzarekin.

Jarduketa honen emaitzak egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015era arte kargu horretan aritutakoari, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Finkatutako epea iraganda, ez dugu alkatearen alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Leringo Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

II. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptua, ezarpena eta mantentzea.

Leringo Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko abuztuaren 3an onetsi zuen 2015ko ekitaldiaren kontu orokorra.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolen Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exigitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Fiskalizazioaren emaitza gisa, aldaketarik gabeko honako iritzia ematen dugu auditoria finantzarioa dela eta, legedia betetzeari buruzko aipatutako salbuespenekin.

II.1 AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, Udalaren ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Gutxienez ere 2012ko ekitalditik, Udalak ez du aintzat hartu gastu-kredituen izaera mugatzai-lea eta loteslea, exekuzio-oinarrietan beraietan ezarritako lotura juridikoaren mailaren arabera-koa. 2015ean, bost lotura-poltsaren behin betiko kreditua 241.221 euroan gainditu da guztira.

Ez dago jasota aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren araudian eza-rritako arau fiskalak bete direnik.

Udalaren jabetzakoa den araztegiaren mantentze-lanen esleipena egin da kontratazio publi-koaren arloko araudia alde batera utzita; izan ere, kontratista bi aldeen adostasunaz izendatu da, hain zuzen araztegiaren erabiltzailea den merkataritza-enpresa bakarrarekin, aldez aurretik egin-dako hitzarmen baten indarrez. Esleipenaren zenbatekoa 177.656 eurokoa da, gutxienez.

Iritzia

Gure iritiz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginarengatik ez bada, Udalaren 2015eko ekitaldiko, jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatze-koak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Atal honetan, Udalaren kontu orokorrean jasotako kontabilitatearen egoera-orriei buruzko laburpen bat ematen dugu.

III.1. UDALAREN 2015eko AURREKONTU-EXEKUZIOAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapitulua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	1	476.716	0	476.716	479.433	% 101	456.474	22.959
Zeharkako zergak	2	18.000	0	18.000	25.720	% 143	25.321	400
Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	3	154.352	0	154.352	153.527	% 99	143.890	9.637
Transferentzia arruntak	4	694.010	0	694.010	786.302	% 113	776.097	10.205
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	150.906	0	150.906	150.518	% 100	149.692	826
Ondasunen besterentzea	6	1	0	1	7.092	% 709161		7.092
Kapital-transferentziak	7	11.000	0	11.000	0	% 0	0	0
Finantza-aktiboan aldaketa	8							
Finantza-pasiboan aldaketa	9							
Diru-sarrerak, guztira		1.504.985	0	1.504.985	1.602.592	% 106	1.551.474	51.118

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
Langile-gastuak	1	507.961	-46.100	461.861	461.672	% 100	444.909	16.763
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2	577.109	37.100	614.209	820.301	% 134	648.108	172.192
Finantza-gastuak	3	25.039		25.039	18.591	% 74	18.591	0
Transferentzia arruntak	4	78.262	9.000	87.262	100.955	% 116	90.680	10.275
Inbertsio errealak	6	13.000		13.000	0	% 0		0
Kapital-transferentziak	7							
Finantza-aktiboak	8							
Finantza-pasiboak	9	121.098		121.098	116.253	% 96	116.253	0
Gastuak, guztira		1.322.468	0	1.322.468	1.517.772	% 115	1.318.542	199.230

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	(*) 2014ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	1.602.592	1.946.668
Aitortutako betebeharrak	1.517.772	1.614.339
Aurrekontu-emaiza	84.820	332.329
Doikuntzak	0	0
Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	0
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	84.820	332.329

III.3. 2015eko EMAITZA EKONOMIKOA

Zor

	Deskribapena	2015	2014
61	Langile-gastuak	461.672	477.383
62	Finantza-gastuak	18.591	16.866
64	Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	820.301	679.194
67	Transferentzia arruntak	100.955	74.957
68	Kapital-transferentziak		
69	Kalkulatutako gastuak		
D80	Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa	0	0
D84	Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	37.079
D89	Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	0	0

Hartzeko

	Deskribapena	2015	2014
70	Salmentak	153.527	155.670
71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	150.518	155.504
72	Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	391.504	384.463
73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	107.255	108.057
76	Transferentzia arruntak	786.302	706.180
77	Kapitalaren gaineko zergak	6.395	4.119
78	Bestelako diru-sarrerak		
	Ekitaldiaren emaitza korrantea	193.981	265.593
H84	Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	2.904	213.357
H89	Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	196.885	441.870

III.4 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2015eko ABENDUAREN 31n.

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	63.446	79.919
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	51.118	64.825
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	174.973	157.582
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	1.128	166
+ Ordaintzen itzulketak		
- Bilketa zaileko eskubideak	163.773	142.654
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak		
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	452.606	564.386
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	199.230	372.296
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	188.226	157.153
+ Diru-sarreraren itzulketak		
- Aplikatzeko dauden gastuak		
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	65.150	34.936
+ Diruzaintzako funts likidoak	142.248	170.984
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	-246.912	-313.483
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta		
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-246.912	-313.483

III.5. UDALAREN EGOERARI BURUZKO BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

Aktiboa

	Deskribapena	2015	2014
A	Ibilgetua	16.556.413	16.563.504
1	Ibilgetu materiala	8.061.750	8.068.842
2	Ibilgetu ez-materiala		
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.326.615	1.326.615
5	Herri-ondasunak	7.168.047	7.168.047
6	Finantza-ibilgetua		
C	Zirkulatuzailea	369.467	393.556
7	Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	176.101	157.747
8	Aurrekontuko zordunak	51.118	64.825
9	Finantza-kontuak	142.248	170.984
	Aktiboa, guztira	16.925.880	16.957.060

Pasiboa

	Deskribapena	2015	2014
A	Funts berekiak	15.272.194	15.075.341
1	Ondarea eta erreserbak	15.075.309	14.633.471
3	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	196.885	441.870
	Epe luzeko zorrak	1.201.080	1.317.333
4	Jasotako prestamenak, fidantzak eta gordailuak	1.201.080	1.317.333
	Epe laburreko zorrak	452.606	564.386
5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	253.376	192.090
6	Aurrekontuko hartzekodunak	199.230	372.296
	Pasiboa, guztira	16.925.880	16.957.060

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondotik, arlo batzuetan egindako lanaren azterketa xehea ematen dugu, eta, Ganberaren iritziz, Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Aitortutako betebeharren zenbatekoa 1,52 milioikoa da, eta likidatutako eskubideena, berriz, 1,60 milioi eurokoa.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek ehuneko 92 egiten dute; finantza-eragiketen arloko gastuek, berriz, ehuneko zortzi egiten dute. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 99,6 dira; diru-sarrera horien ehuneko 49 jasotako transferentzia arruntetatik datoz. Ez dago zorpetetik heldutako diru-sarrerarik.

Laburbilduz, Udalak 2015ean eta 2014an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2015	2014	Finantza iturria	2015	2014
Langileak	30	30	Tributu bidezko diru-sarrerak	41	34
Bestelako gastu arruntak	62	48	Transferentziak	49	45
Inbertsioak	0	17	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	10	9
Finantza-pasiboak	8	6	Finantza-pasiboak	0	13
	100	100		100	100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

Adierazleak eta magnitudeak	2015	2014	15/14 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	1.517.772	1.614.339	-5,98
Likidatutako eskubideak	1.602.592	1.946.668	-17,68
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	1.401.519	1.248.400	12,27
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.382.928	1.231.534	12,29
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	0	269.841	-100,00
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	116.253	96.098	20,97
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.595.500	1.513.993	5,38
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	658.680	652.309	0,98
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	7.092	182.675	-96,12
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	250.000	-100,00
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	% 49	% 45	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	% 41	% 43	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	201.073	178.427	12,69
Aurrekontu-emaizta doitua	84.820	332.329	-74,48
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-246.912	-313.483	-21,24
Aurrezki gordina	212.572	282.459	-24,74
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	138.844	112.964	22,91
Aurrezki garbia	77.728	169.495	-54,14
Zorpetze maila (%)	% 8	% 7	
Zorpetze muga (%)	% 13	% 19	
Zorpetze-ahalmena (%)	% 5	% 11	
Zor bizia (*)	1.201.080	1.317.333	-8,82
Eratutako abalak			

(*) Finantza-entitateekiko zor biziari 89.016 euro gehitu behar zaizkio, hornitzaileei ordaintzeko funtsak ICO-MIHAPI zor dizkionak. Saldo bizi hori 2014koaren eta 2015ekoaren berdina da. Aurretik, aurrekontuari aplikatu behar zaio eta kopuru berean beheratu behar da itxitako aurrekontuetako zordunen saldoa.

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 1,6 milioi eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 106,5ekoa. Kobrantzek, berriz, ehuneko 96,8 egiten dute.

2015ean, Udalaren diru-sarrerak aurreko urtekoak baino ehuneko 18 txikiagoak izan dira; bi-tartean, gastuak ehuneko 6 egin du behera eta aitortutako betebeharrak 1,5 milioikoak izan dira. Guztizko diru-sarrerak 84.820 euroan gaituzte guztizko gastuak.

Diru-sareren beheratze handiena, termino erlatibo eta absolutuetan, kapital-transferentzietatik heldu da, zeren eta ez baita inongo eskubiderik aitortu 2014an aitortutako 164.192 euroko kopurua dela eta. Hori guztia bat dator inbertsioetan egindako gastu korrelatiboarekin, zeina nulua baita 2015ean; 2014an, ordea, 269.841 eurokoa izan zen. Inbertsioak beste-erentzearen ondoriozko diru-sarrerak ehuneko 61 jaitsi dira. 2015ean ez dira erregistratu pasibo finantzarioen aldaketan ondoriozko diru-sarrerak; 2014an, berriz, 250.000 euro kontabilizatu ziren mailegu bat ituntzearen ondorioz.

Zuzeneko zergengatik aitortutako eskubideek aurreko ekitaldiko maila berari eutsi diote. Ze-harkakoak, berriz, ehuneko 50 handitu dira. Tributu bidezko diru-sarrerak 658.680 euro aitortzen dituzte, 2014an baino ehuneko bat gehiago, eta gastu arrunten 1,4 milioiko kopuruaren ehuneko 47 finantzatzen dute.

Transferentzia arruntan bidezko diru-sareren igoera ehuneko 11koa da, eta neurri handi batean zor zaio merkataritza-enpresa batek ordaindu izanari Udalak industrialdeko araztegian egindako gastua, alde aurretik egindako hitzarmenaren indarrez.

Gastuei dagokienez, langileen arlokoek ehuneko 10 egin dute gora, eta horren arrazoa da atzera eraginez aitortu direla zenbait soldata eta 2012ko aparteko soldataren ordainketa partziala; halaber, kontuan hartu beharra dago urtean zehar langile berriak hartu direla.

Igoerarik handiena, ehuneko 35ekoa, transferentzia arruntengatiko gastuetan gertatzen da; izan ere, 2014an 74.956 eurokoak izatetik 2015ean 100.955 eurokoak izatera igaro dira. Hori neurri batean zor zaio 2014an 1. kapituluari egozten zitzaizkion gastu batzuk birsailkatu izanari eta aurreko urtean egon ez ziren diru-laguntza batzuk jaso izanari.

Pasiboen aldaketaren ondoriozko gastuek 20.155 euro egin dute gora, ehuneko 21, eta interesekek, berriz, 1.725 euro, ehuneko 10, zeren eta 2014an izenpetutako mailegu baten amortizazioa eta urteko interesak jaso baitira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 201.073 eurokoa izan da, eta ehuneko 12,7 egin du gora aurreko ekitaldikoaren aldean.

Aurrekontu-emaiza doitu 84.820 eurokoa da: ehuneko 74 beheratu da aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina -246.912 euro- ehuneko 21 jaitsi da 2014ko magnitude berarekin alderatuta -orduan ere negatiboa izan zen-.

Epe luzeko zorra 1.290.096 eurokoa da; horrek diru-sarrera arruntan ehuneko 81 egiten du; egonkortasunari buruzko araudiak, berriz, gehienez ere ehuneko 110 baimentzen du. Oro har, aurreko urteetan egindako inbertsioak finantzatu ditu.

Ehuneko bat igo du zorpetze-maila eta, horrenbestez, zorpetzearen muga eta ahalmena beheratu ditu.

Horren ondorioz, diru-sarrera arruntek aukera ematen dute izaera bereko gastuak finantzatzeko eta zorra amortizatzeko. Udalak ez du inbertsiorik egin, nahiz eta maileguak ituntzeko nolabaiteko ahalmena izan. Hartara aurrekontuko eta aurrezki garbiko emaitza positiboak lortu ditu bai 2014an, bai 2015ean.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, 2014ko zenbatekoaren aldean hobera egin badu ere, negatiboa izan da bi ekitaldietan, ordaintzeko dauden betebeharren zenbateko handia dela eta. Gerakinak positiboa izan behar du, eta horretarako araudian ezarritako neurriak hartu behar dira.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Oro har, Udalaren ez aurrekontuek, ez kontu orokorrek ez dituzte arau fiskalak aipatzen, eta ez dute informaziorik ematen haien betetze-mailari buruz.

Arau horiek, 2012ko ekitalditik aurrera indarrean egon direnak, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarri ziren

Kalkulu bat egin dugu Udalak printzipio horiek direla-eta daukan egoerari buruz, honako hauek ondorioztatu ditugu:

- Oreka/finantzaketa-ahalmena kontabilitate nazionalen terminoetan.

Finantzaketa-ahalmena	2015
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa (diru-sarreraren 1etik 7ra ken gastuen 1etik 7ra)	201.073
Kutxako irizpideen doikuntza, 1. kapitulutik 3. kapitulura	-12.924
+ Itxitakoetatik kobratutakoa, 1. kapitulutik 3. kapitulura	20.072
- Aurrekontu arruntetik kobratzeko dagoena, 1. kapitulutik 3. kapitulura	-32.995
Finantzaketa-ahalmena	188.149

Horrenbestez, Udalak aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta, gure kalkuluen arabera, 188.149 euroko finantzaketa-ahalmena baitu.

- **Gastuaren araua**

Gastuaren araua	2.015	2.014
Exekutututako gastua, 1. kapitulurik VII. kapitulura	1.401.519	1.518.241
– Gastuen III. kapitulua	-18.591	-16.866
– Inbertsio errealak besterentzeagatiko diru-sarrerak	-7.092	-18.483
– Diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuak, VII. kapitulua	-100.438	-119.267
– Diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuak, IV. kapitulua	0	-154.322
Gastu zenbakarria	1.275.398	1.209.303

Igoera ehuneko 1,05ekoa izan da. Gastu-araua bete da, zeren eta 2015eko gastu zenbakarriak ez baitu gainditu 2014koa gehi ehuneko 1,3.

Egoztekoak diren gastuen artean ezohikoa den bat sartu da, hondakin uren araztegi (EDAR) egindako inbertsioak birjartzeari dagokiona; izan ere, gastu hori merkataritza-enpresa pribatu batek finantzatu du guztiz, Udalarekin sinatutako hitzarmen bat aplikatuta. Gastua finantzatu zen gastu zenbakarria zehaztearen eraginetarako deskontatu behar ez diren diru-sarrerekin. Udalaren garbia zero izan da.

- **Zorraren jasangarritasuna**

Egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako, ulertzen da zor publikoa dela entitateak urte bakoitzaren abenduaren 31n daukan zorra, egindako kreditu-eragiketen erabili gabeko saldoa kenduta.

Zorraren jasangarritasuna	2015
Zor biziaren egoera	1.201.080
ICO MINHAP mailegua	89.016
Zorra, guztira	1.290.096
2015eko diru-sarrera arruntak	1.595.500
Zor biziak/diru-sarrera arrunten gainean egiten duena (%)	% 80,86

Horrenbestez, araua betetzen da, zeren eta zor biziak ez baitu gainditzten diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.

- **Merkataritza-zorra.**

Lanean zehar, egiaztatu da hornitzaileei ordaintzeko epea ez dela betetzen. Udalaren arazo historikoa da hori, ekitaldiaren amaieran konpondu gabekoa. Gobernu-taldearen egungo irizpidea da lehentasuna ematea bere agintaldian hartutako betebeharrak ordaintzeari.

Horri buruz gogoratu beharra daukagu Aurrekontu-kudeaketari buruzko 270/1998 Foru Dekretuak aipatzen duela ezen ordaintzeko lehentasunak ezartzerakoan aintzat hartu behar dela, besteak beste, hartutako betebeharren antzintasuna.

Gomendatzen dugu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-egonkortasunaren helburuen betetzea kalkula dadila, haiei buruz kontu orokorrean informa dadila eta, kasua bada, araudi horretan ezarritako neurriak har daitezela.

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

2015eko aurrekontua legezko epean onetsi da eta NAOn argitaratu da. Haren edukia araudiak eskatzen duenari egokitzen zaio, salbu eta dokumentu osagarrietako batzuk ez sartzeari dagoki- onean; horietako bat kontu-hartzaitzaren txosten ekonomiko-finantzarioa da.

Aurrekontuaren exekuzio-oinarriak ez zaizkio egokitzen Udalean ezarrita dagoen eredu sinpli- fikatuari.

Hasierako aurrekontuak, aurreko urteetan bezala, superabita dauka (182.517 euro), egoera ekonomikoa arintzearen. Hala eta guztiz ere, hasierako aurrekontu-superabitak gutxienez ere aurreko ekitaldian gastu orokorretarako sortutako diruzaintza-gerakin negatiboaren berdina izan behar zuen; hau da, 313.483 eurokoa. 2016tik aurrera, gastu gisa jaso behar da aurrekontuetan honako aktiboen aldaketa: "890 Diruzaintza-gerakin negatiboarengatiko defizita".

Ez da aintzat hartu gastu-kredituen izaera mugatzailea eta loteslea, exekuzio-oinarrietan be- raietan ezarritako lotura juridikoaren mailaren arabera; izan ere, oinarri horiek bat datoz Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin.

Zehazki, zehaztutako bost "lotura-poltsatan" behin betiko kreditua 241.221 eurotan gainditu da.

Aurrekontuak aldaketa bakarra izan du; izan ere, bi kontu-sail kapitulu desberdinetan birsail- katu dira, gastuaren izaera ekonomikoa dela eta. Osoko Bilkurak 2016ko martxoan onetsi zuen hori; horrenbestez, haren eraginkortasuna exekuzioaren aurkezpena mugatzen da.

2015eko aurrekontu-likidazioa ez zen onetsi alkatetzaren ebazpen batez; izan ere, behin kontu orokorrean sartuta, Kontuen Batzordeari aurkeztu zitzaion epearen barruan. Kontu orokorra 2016ko abuztuaren hiruan onetsi zuen Osoko Bilkurak.

Kontu orokorraren edukia arauetan eskatutakoaren arabera da; salbuespen bakarra da ta- sekin edo prezio publikoekin finantzatutako kostuen oroitidazkia falta dela. Kontu-hartzaitzaren txosten ekonomikoak ez du zorraren egoera aipatzen.

Udalak ondasun eta eskubideen inbentario baloratu bat dauka, 2011n onetsia eta 2014ko eki- taldiaren itxieran eguneratua.

- Gorabeherak. 2015eko ekitaldiaren itxieran, 50.000 euroan kalkulaturako arrisku bat zegoen Udalarentzat. Kopuru hori heldu da abokatu batek sortutako lansari batzuk direla-eta egindako erreklamaziotik. 2014ko azaroaren epai batez, erreklamazio hori ezetsi egin zen, baina errekurtsio bat aurkeztu zen epai horren aurka. Nafarroako Auzitegi Nagusiak ez du errekurtsio hori ezetsi 2016ko maiatzera arte. Erabaki horren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

2013ko epai batek Udala zigortu zuen hornitzaile bati printzipaleko 38.326 euro, prozeduraren kostuak eta kasuko interesak ordaintzera. Udalak kostuak ordaindu zituen eta hornitzailearekin adostu zuen printzipala zatika ordaintzea. Zehazteko daude epaiak aipatzen dituen berandutze- interesak eta epaiak geroztik sortutakoak.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak eta kontu orokorra araudi indardunean ezarritako dokumentazio guztiarekin landu eta onestea, horren barne dela aurrekontu-egonkortasunari buruzkoa.*

- *Aurrekontuak onestea gutxienez ere aurreko ekitaldian sortutako gastu orokorretarako diru- zaintza-gerakin negatiboaren berdina den kopuruko superabitarekin, eta kasua bada Toki Oga- sunei buruzko Foru Legean ezarritako gainerako neurriak ezartzea diruzaintza-gerakin negati- boen kasurako.*

- *Kredituetarako ezarritako lotura juridikoko maila errespetatzea; kreditu nahikorik ez bada, behar diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea.*
- *Inbentarioa ekitaldi bakoitzaren amaieran eguneratzea.*

IV.4. UDALEKO LANGILEAK

Udalaren plantilla organikoak bost lanpostu jasotzen ditu, guztiak ere aktiboak. Aurreko ekitalditik ez da aldaketarik izan. Aurrekontuekin batera onetsi eta argitaratu zen.

	Kopurua		Maila
Idazkaria	1	Administrazio-kontratupekoak	A
Kultura koordinatzailea	1	Funtzionarioa	B
Obretako arduraduna	1	Funtzionarioa	C
Ofizial administraria	1	Funtzionarioa	C
Administrari laguntzailea	1	Lan-kontratadun finkoak	D

Udalak ez du lan-eskaintza publikorik onetsi.

2015eko ekitaldi osoan zehar, obretako brigadan lau pertsonak lan egin dute, obrako edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin. Gainera, lau langabetu kontratatu ziren Lizarrako enplegu-bulegoaren bitartez.

1. kapituluaren hasierako aurrekontua 507.961 eurokoa zen. Onetsitako aurrekontu-aldaketa bakarrak, -46.100 eurokoa denak, Musika Eskolaren eta Musika Bandaren kredituak birsailkatzen ditu 4. eta 2. kapituluetan, zeren eta langile horiek ez baitira Udalaren langile berekiak. Horrekin, behin betiko aurreikuspena 461.861 eurokoa da. Birsailkatze bera 2014an egin izan balitz, 2015eko aurrekontua aurreko urtekoa baino ehuneko 7 handiagoa izanen zen.

2015ean aitortutako betebeharrak 461.672 eurokoak izan dira eta ehuneko 99,96ko exekuzio-maila izan dute. Langile-gastuek gastu guztien ehuneko 30 egiten dute.

Gastuaren bilakaera honako hau izan da:

	Aitortutako betebeharrak garbiak		Aldea (%)
	2015	2014	2015/2014
Hautetsiak	17.579	17.518	0,3
Funtzionarioak	100.602	95.191	5,7
Lan-kontratadun langileak	165.135	159.669	3,4
Bestelako langileak (*)		28.740	
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	178.356	176.265	1,2
I. kapituluaren guztizkoa - Langile-gastuak	461.672	448.643	2,9

(*) Ez dugu bildu "bestelako gastuak" delakoa, 2015ean II. eta IV. kapituluetan birsailkatu baita.

Igoera aipagarriena langile funtzionarioetan gertatu da. Horren arrazoia dira 2012ko aparteko soldataren ordainketa partziala eta 2014an funtzionario baten aparteko soldata beste kontzeptu batean oker egozteak.

Lan-kontratupeko langileen artean, idazkaria sartzen da, zeina udalari administrazio-kontratu baten bitartez lotuta baitago. Lan-kontratupeko langileen gastuak ehuneko 3 egin du gora aurreko ekitaldikoarekin alderatuta. Arrazoiak izan dira horrelako langileei 2012ko aparteko soldataren ordainketa partziala egitea eta langile bati familia-laguntzako lau urte aitortzea -4.430 euro-, Nafarroako Auzitegi nagusiaren jurisprudentzia betetze aldera.

Nominak egiaztatuta, ondorioztatzen dugu ordainsariak plantilla organikoan esleitutako lanpostuaren edo, brigadako langileen kasuan, izenpetutako kontratuaren arabera ordaindu direla, betiere langile bakoitzaren espediente pertsonalean jasotako inguruabar administratibo eta pertsonalen eta haiek aplikatzekoa den araudia betetzearen arabera. Egindako atxikpenak zuzenak direla egiaztatu dugu. Laginketa bidez, segurtatu dugu nominako likidoa bat datorrela langile bakoitzari egiazki ordaindutakoarekin. Hala eta guztiz ere:

Funtzionario batek plantilla organikoan finkatutako soldataz gainera 4.000 euro jasotzen ditu, herriko jaietan eskuragarri egoteagatik; kasu honetan, aurreko urteko herriko jaietarako ordainketa. Ordainketa hori urtero egiten da, Osoko Bilkurak aurrez onespena emanda, baina ez da atxikipenik egiten.

Lansari hori ez dago jasota izaera eskusiboz Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei buruzko Erregelamenduan jasotako arteen.

Nominak kanpoko auditoria-entresa batek egiten ditu, eta horrek 2.430 euroko gastua ekarri du 2015ean. Kudeaketa modu horrek udal kontu-hartzailetzaren berrikuspen sakona eskatzen du. Kontrol hori behar bestekoa ez izateak ekarri du kalkuluetan zenbait akats egitea, munta ez oso handikoak, udalaren zerbitzuei ezagutzera eman zaizkienak.

Ofizial administrariari PFEZa dela-eta egindako atxikipenak familia-laguntza ere hartzen dute. Okerra da hori. Foru Ogasunari urtero egiten zaion aitortzea, berriz, zuzena da.

- Lan-kontratupeko beste langile batzuk.

2015ean, lau langabeturi obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak egin zitzaizkien. Horietatik bi bederatzitik egunekoak dira –II. kapituluari egotziak– eta beste bi, izenpetutako kontratuaren arabera, hilabete ingurukoak dira. Azken bi langile horiek abendura arte egin dute lan; hau da, bost hilabetez.

Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzutik 15.056 euroko diru-laguntza jaso zuen ofizial bat eta peoi bat bost hilabetez kontratatzeko gastuaren ehuneko 60 finantzatzeko. Udalak uko egin zion diru-laguntza horri, krediturik ez baitzuen. Gero, hasiera batean hilabetez kontratatutako bik eskatutako bost hilabetez egin dute lan.

- Gizarte kuota eta gastuak

Udalak Ogasunean sartu ditu nometan, zinegotzien dietetan eta profesionalen fakturretan kalkulaturako atxikipenak, alde batera utzita ordaindu diren ala ez eta, horrenbestez, atxikipena egin den ala ez. Horri dagokion aurrekontuaz kanpoko kontzeptuan, soilik kontabilizatzen dira ordaindutako dietak eta fakturak: kutxa-irizpide hori egokia da Nafarroako PFEZari buruzko Erregelamenduen arabera.

Hartara, Foru Ogasunari ordaindutako zenbatekoak zuzenak direnak –aurrekontuz kanpokoetan erregistratuak– baino handiagoak dira. 2017tik aurrera, Ogasunean sartuko dira egiazki kutxa-irizpidearen arabera egindako atxikipenak, irizpide hori baita bidezkoa kasu honetan.

Funtzionario bat montepioen araubideari atxikita dago. Foru Administrazioari egindako aitortzean, egiazki jasotako nominaren kontzeptu guztiei dagozkien atxikipenak sartu dira, eta, horrenbestez, banaketa-kontuaren bitartez ordaintzen dira.

Hala eta guztiz ere, langileari egindako atxikipenak behar zirenak baino txikiagoak dira, aparteko orduak eta eskuragarri egoteagatik ordainsaria kanpo uzten direlako.

Hautetsiak. Osoko Bilkuraren 2015-07-13ko erabakiaz adostu zen alkatearen arduraldi partzialarengatik ordainsariari eustea; urtean, 11.280 euro gordin dira. Horixe izan da kontabilizatutako zenbatekoa, bai irten den alkatearen kasuan, bai sartu den alkatearen kasuan. Gainerakoa zinegotzietatik dietak ordaintzei dagokio, osoko bilkuretara, taldeko bileretara edo lan batzordeetara joateagatik edo organo parekide edo bestelakoetan parte hartzeagatik. Hautetsientzako aseguruari dagozkion 524 euro jaso dira.

Hona gure gomendioak:

- *Jasotzerakoan, kanpoko aholkularitza-entresa batek landutako nominak berrikustea, antzemandako akatsak saiheste aldera.*
- *Langile bat eskuragarri egoteagatiko lansaria egokitzea ordainsariei buruzko erregelamenduaren zehaztapenetan ezarritakoaren arabera, eta plantilla organikoan jasotzea.*
- *Nominetan atxikipenak egitea zor diren kontzeptu guztiengatik eta haiek kutzako irizpideari jarraituz ordaintzea.*

IV.5. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN.

2015ean kapitulu honetan aitortutako betebeharrak 820.301 euro egiten dute, Udalaren gastuen ehuneko 54, eta behin betiko kreditua ehuneko 33,55 gaintu da.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuak ehuneko 21 egin du gora; hona xehetasunak:

	2014	2015	Aldea (%),
Errentamenduak	6.093	6.876	13
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	65.308	69.295	6
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	606.032	742.904	23
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	1.761	1.226	-30
	679.194	820.301	21

Gehikuntza “Industrialdeko araztegiaren kontrol operatiboa” kontu-sailean gertatzen da bereziki. 2014an 59.927 eurokoa izatetik 2015ean 207.589 eurokoa izatera pasatu da, zeren eta ekitaldiari 2014ko hiruhileko bateko gastua egotzi baitzaio, eta egiazki inbertsiokoak diren beste gastu batzuen ondorioz. Musika eskolarengatiko 44.242 euroko zenbatekoa jasotzen du. I. kapituluaren birsailkatuta dago.

Hirugarrenek emandako zerbitzu batzuk –esate baterako, aholkularitza ekonomiko eta kontabilitatekoa, lanekoa, hirigintzako, katastroaren mantentze-lanak eta beste batzuk– muga-egunera iritsita dauden kontratuen bitartez ematen dira.

Honako kontusail hauek dira berrikusi ditugu –kapitulu horretako ehuneko 70,76 biltzen dute–:

	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Aldearen ehunekoa
Industrialdeko araztegiaren kontrol operatiboa	72.000	207.589	188,3
0-3 urtekoen zikloaren kudeaketa	35.000	58.513	67,2
Kirol-instalazioen ustiatzea	49.950	49.450	-1,0
Musika eskola	37.100	44.242	19,3
Herriko jaietako gastuak	80.000	81.685	2,1
Udal arkitektoa	15.000	16.953	13,0
Telefono bonoa (fakturazio laua)	9.000	13.007	44,5
Igerilekuen mantentzea	2.000	8.388	319,4
Banku-gastuak	1.000	2.164	116,4
Ibaiko bideak konpontzea	15.000	32.610	117,4
Notario eta erregistratzaileen lansariak	2.000	4.782	139,1
Tracasa. Katastroaren mantentze-lanak	4.000	9.112	127,8
	322.050	528.496	64,1

•

- Araztegiaren kontrol operatiboa.

2002an du jatorria. Aurretik herri-lurren desafektazioa egin zen eta haiek 30 urtez laga ziren – luza daitekeen lagapena da–. Udal planean zenbait aldaketa eginda, El Saso izeneko S.1.5 sektorea sortu zen, hegaztien ustiategi bat ezartzeko industria-lurrekoa, 60.000 m²-rekin eta etorkizuneko hedatze baterako zabalera bereko lur-erreserba batekin.

Proiektuak barnean hartzen zuen industrialdeari zerbitzu emateko udal titularitateko hondakin-uren araztegi bat eraikitzea. Planari buruzko hirigintza-araudiak zehazten zuen instalazio horren eta haren kolektoreen mantentzea industrialdean ezarritako enpresek hartuko zutela beren gain.

Hegaztien ustiategiak, instalatutako enpresa bakarra baita, eta Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2015ean; haren bidez, merkataritza-enpresak araztegiaren mantentze- eta kudeaketa-kostua hartzen du bere gain. Udalak bere burua behartzen du enpresa espezializatu bat kontratatzea, bi alde sinatzaileek ados jarrita hautatua.

Mantentzea, beharrezko diren inbertsioak eta isuriengatiko balizko zehapenak Udalak ordaintzen eta kontabilizatzen ditu. Egindako gastua abeltzari ordainarazten dio fakturen bitartez. Merkataritza-enpresaren ordainketak diru-sarreraren aurrekontuari egotzen zaizkio.

Kontu-sailaren 2015eko aurrekontu-exekuzioa aztertuta, honako hau ondorioztatzen da:

Ekitaldian araztegiaren mantentzeaz arduratzen den enpresa esleipen-hartzailea aldatu zen. Hegaztien ustiategiak eta Udalak, horretarako, hitzarmen bat egin zuten 2015eko urrian, zeinean mantentzeaz arduratuko zen enpresa berria izendatzen baita eta desnitifikatzerako eta kontrolerako proposamen tekniko bat onesten baita, gutxienez ere 177.656 eurokoa.

Kontabilizatutako gastua, 213.233 euro, bat dator eskaintako prezioekin. Gastuaren zati handi bat ibilgetuko elementuen birjarpenari dagokio; izan ere, inbertsioen VI. kapitulari egotzi behar harko litzaioke.

Zerbitzu lehiarik eta publizitaterik gabe esleitu zen. Ez zen kontraturik egin, eta ez da jaso ez eperik ez bermerik.

Honako hauek dira kontratuaren xede diren zerbitzuak: 0-3 zikloaren kudeaketarako, kirol-instalazioen eta igerilekuen ustiaketarako eta musika eskolarako esleipen-hartzaileak lehia bi-dezko prozeduran hautatu dira. Fakturatutako zenbatekoak kontratatutakoei dagokie.

- 0-3 urtekoen zikloaren kudeaketa

Zerbitzu hori emateko kontratua 2014an onetsi zuen Osoko Bilkurak eta urte horretan bertan formalizatu zen. Lizitazioa kontratazio-atarian argitaratu zen. Kontratutako prezioa 58.513 eurokoa izan zen; epea urtebetekoa da, lau urtera arte luza daitekeena. Kontratu berriaren prezioa da gastuak 2014koaren aldean behera egin izanaren arrazoiak.

Kontu-sailaren aurrekontua oker egin zen, eta 35.000 euroan ezarri; hori dela eta, baimendutako kreditua ehuneko 67 gairitu da.

- Kirol-instalazioen ustiatzea.

Bi kontratuen gastuak batera biltzen ditu: kirol instalazioena eta igerilekuen kudeaketarena: biak 2013ko martxoan onetsi ziren. Lehenengoaren prezioa 19.950 eurokoa da, eta igerilekuena, berriz, 29.500 eurokoa. Hori bat dator bai 2014an bai 2015ean kontabilizatutako gastuarekin. Kontabilitateko idatzoharra kasuko fakturretan oinarritzen da, eta fakturak behar bezala baimenduta daude. Gehieneko epea lau urtekoa edo lau denboraldikoa da.

- Musika-eskola.

Hasiera batean, 37.100 euroko aurrekontua ezarri zitzaion langile-gastuen 1. kapitulari. Aurrekontu-aldaketa baten bitartez 2. kapitulari birsailkatu da. 44.242 euro egiten duten betebeharrak aitortu dira.

2015eko urritik aurrera, beste esleipen bat egin da zerbitzurako, ordura arte indarrean zegoenaz beheragoko prezioan.

Azken esleipen horren kontratazio-espeditentea zuzena da, oro har, honako hauengatik izan ezik:

Ez dago jasota txosten arrazoitu bat dagoenik, non kontratuaren xede diren prestazioen beharra, ezaugarriak eta zenbatetsitako balioa azalduko den. Prestatze-jarduketa hori beharrezkoa da.

Kontraturako zenbatetsitako balioa, balizko luzapena barne, 74.264 eurokoa da, BEZa kenduta. Esleipena kontratazio atarian argitaratu beharrezkoa zen, zeren eta hura zela-eta zenbatetsitako zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa baitzen. Argitaratze hori ez zen egin, ordea.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi bakar batean, eskaintzaile bati zuzentzeko epe bat ireki zion, dokumentazio administratiboa falta zuelako, eskaintza tekniko eta ekonomikoak kalifikatu zituen eta esleipena proposatu zuen. Zuzentzeko errekerimendua, beraz, forma hutsezkoa da.

- Herriko jaiak.

2015ean 81.685 euro egiten duten betebeharrak aitortu dira: 52.897 euro ordaindu dira haiek direla eta. 2014an, gastua 91.794 eurokoa izan zen; horietatik 50.751 euro ordaindu ziren. Gainerakoa 2015ean ordaindu da. Aitortutako betebeharrek ehuneko 11 egin dute behera aurreko urtekoen aldean.

Gastu handienak (behiak, txarangak, orkestrak) batzorde batek negoziatu eta Osoko Bilkurak onesten ditu. Kontratuak jasota daude. Prezioa bat dator kontabilizatutako zenbatekoarekin.

Zezenketa eta zezen-ikuskitunak zuzentzeko kontratua jaso da, bai eta zezenketaren arloko profesionalen araubide bereziari gizarte-segurantza ordaindu izana ere. Ez da PFEZaren atxikipenik egin.

Gutxienez ere 4.400 euro ordaindu dira garbiketako langileen eta peoien nominan, eta jaietako aparteko lanak ere ordaindu dira. I. kapitulari egotzi ahal zitzaizkion ordainsariak dira.

- Udalaren arkitekto aholkularia.

Hasierako kontratua 1991koa da. Arkitektoak hiruhilekoen arabera fakturatzen du, ordu bakoitzeko prezio bat jarrita, ordu horiek bertaratzekoak izan nahiz ez izan. Bi hiruhilekotako fakturak ordaindu dira.

Udalak 51.231 euroko zorra kontabilizatuta dauka arkitekto aholkulariarekin, aurreko urteetan emandako zerbitzuengatik. 2011ko zenbatekoa jada kobratuta dago, hornitzaileei ordaintzeko funtsaren kargura. Dirudienez arrazoiak kalteengatik antzinako erreklamazio bat da. Hura likidatzeko, ordea, nahikoa izanen zen faktura bakar baten atxikipena egitea, zenbatekoa zein zen ikusita.

- Gainerako kontu-sailak.

Aztertutako gainerako kontu-sailek guztira 70.063 euro egiten duten gastuak jasotzen dituzte; haien izaera bat dator kontu-sailaren izenarekin eta behar bezalako euskarria dute albaran eta fakturretan.

Honako iruzkin hauek egin daitezke:

Bideak konpontzeko lanak 2013an esleitu zituen Osoko Bilkurak, eskaintzak eskatuta. Eskaintzak jardueretako ordu bakoitzaren prezioaren arabera egin ziren. Ez dira jasotzen ez konpondu beharrezko bideak, ez eta proiektatutako obra-unitateak ere; hori dela eta, ezin da jakin zein den aurrekontuaren guztizko zenbatekoa, zeina erabakigarria baita Kontratuei buruzko Foru Legearen zenbait alderdi aplikatzeko.

Kontu-sail honetan kontabilizatutako zenbatekotik, 26.280 euroekin 2013an egin baina 2015ean fakturatu diren lanak ordaintzen dira.

Kontabilitatearen arabera, esleipen-hartzaileari oraindik ere 22.859 euro zor zaizkio, 2010ean sortutako ordainketa-betebehar bati dagozkionak. EIOZetik kobratu da jada, hornitzaileei ordaintzeko funtsaren bitartez.

Tracasak katastroa dela-eta egiten dituen mantentze-lanak kontzeptu horri dagozkion 2015eko fakturak jasotzen ditu. Ez dago jasota zenbatetsitako aurrekontu bat dagoenik, ez eta ordu bakoitzeko prezioari buruzko zehaztasunik ere, udalak kontrola errazago egin dezan.

Hona gure gomendioak:

- *Laguntza kontratueterako lau urteko gehieneko epea ezartzen duen araudia betetzea, luzapen guztiak barne direla.*

- *Udalaren eta merkataritza-enpresa baten artean hondakin-uren araztegia dela-eta egin-dako hitzarmena berrikustea. Mantentzea industrialdean ezarritako enpresen erantzukizuna da, baina Udalak zerbitzua kontratatzea erabakitzen badu hori kontratu publikoei buruzko araudia betez egin beharko du.*

- *Fakturatutako ondasun edo zerbitzua lortzen den ekitaldi berean fakturak lortu eta kontabilizatzeko prozedura bat ezartzea.*

- *Hornitzaileei legezko epeetan ordaintzea.*

IV.6. ZORRAREN FINANTZA-ZAMA

Zorraren zerbitzuak –interesak eta amortizazioak ordaintzea– gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluetan du bere aurrekontu-izla. 2015ean, honako xehetasunak dituzten betebeharrak aitortu dira:

	Amortizazioa 2015	2015eko interesak	Guztira
Industrialdeko urbanizazioaren obretarako kreditua	59.337	3.385	62.722
Gizarte-etxeko obretarako kreditua	12.875	1.280	14.155
Zenbait obratarako kreditua	10.235	113	10.348
Lursail baten kanpoko itxiturarako kreditua	5.728	586	6.314
Kiroldegirako kreditua	7.924	691	8.615
Inbertsioetarako mailegua	20.155	12.536	32.691
	116.253	18.591	134.844

Amaierako zenbatekoari hornitzaileei ordaintzeko funtsaren interesak gehitu behar zaizkio: 2015ean 2.143 eurokoak izan ziren.

IV.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ONDORIOZKO GASTUAK

Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 6,65 egiten dute. Izaera hori duten gastuek 78.262 euroko aurrekontua izan zuten. 2016ko martxoko Osoko Bilkurak 9.000 euroko kreditu-transferentzia bat onetsi zuen, langileen 1. kapitulutik, non bandarako aurrekontu-kreditua ageri baitzen.

Kapituluaren behin betiko kreditua, aldaketa egin ondoren, 87.262 eurokoa da. Gainditu egin da, zeren eta 100.955 euroko betebeharrak aitortu baitira; ehuneko 15,69 gehiago, beraz.

Aurreko ekitaldiarekiko igoera ehuneko 34,7koa da, zeren eta zenbait diru-laguntzak gehitu baitira; honakoak kasu: enplegurako sustapena, liburutegi publikoa, musika banda edo Aldeas Infantiles SOS elkartearentzako diru-laguntza.

Enplegu sustatzeko diru-laguntza kenduta, aurrekontuan jasotako transferentzia eta diru-laguntza guztiak izendunak dira.

Honako lagin hau egiaztatu dugu –kapituluko gastu guztien ehuneko 61,4 egiten du–:

Kontzeptua	Gastua 2015ean
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	46.203
Toki garapena	6.795
Amado Alonso Fundazioa	6.000

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

Kontzeptu hori dela eta Allo, Deikaztelu, Arellano, Arroitz eta Leringo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ordainketak, Mankomunitateak ekitaldirako onetsitako gastuen hainbanaketarekin bat.

- Toki garapena.

Gastua garapen-erakundeetan parte hartzeko kuotei dagokie: Teder elkartea, Tokiko Garapenerako Agentzia, Lizarrako Turismo Partzuergoa eta Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharbertzako Bulegoa. Lerinek erakunde horien finantzaketan laguntzen du, eta Jurramendiko Mankomunitateak haietan parte hartzen du gutxienez ere 2001etik.

Hiruhileko bakoitzean kopuru batzuk ordaintzen dira, Mankomunitatearen faktura jasota. Ez dago jasota Mankomunitatearen erabakirik, 2015eko kontuak onesten dituenik.

- Amado Alonso Fundazioa.

Fundazioa 2000n sortu zen, eta hartan Udala, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Leringo filologo eta historialariaren familia daude. 6.000 euroko ekarpena ordaindu da eskaera egin eta Fundazioak aurreko urteko kontuak aurkeztu ondoren.

IV.8. INBERTSIOAK

13.000 euroko kreditu batekin, ekitaldian zehar ez da egin aurreikusitako esku-hartzeetatik bakarra ere.

Azken urteetako inbertsioek honako gastu hau ekarri dute:

2010	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira
1.352.373	720.231	171.549	51.930	269.841	0	2.565.924

Udalaren zorrak 2006ko ekitaldia baino lehenagoko inbertsioak ordaindu ditu, salbu eta 2014ko mailegu bat, 250.000 eurokoa, muga-egunera iristekotan dagoen kreditu-kontu bat ixteko balio duena.

Kopuru handiena duten hiru espedienteak berrikusi ditugu: Argiterian inbertitzeko proiektua, igerilekuak eta Cárcar-Lerin linea elektrikoa; hau da, 2010-2015 urteetan inbertsioetan egindako gastu osoaren ehuneko 49,8. Horiek guztiak 2010ean hasi ziren izapidetzen.

Inbertsioa	Guztira
Argiterian inbertitzeko proiektua	317.647
Cárcar-Lerin linea elektrikoa	585.018
Igerilekuak	377.565
Inbertsioak, guztira	1.280.230

Argiterian inbertitzeko proiektua. Kontratuaren xedea zen Leringo argiteria publikoaren instalazioa eraberritzea. Aurrekontua 283.670 eurokoa zen, BEZa barne. Ezarritako epea, berriz, hiru hilabetekoa zen.

Finantzaketa: obra 2009-2012 urteetarako Toki Azpiegituren Planean sartu zen. Onetsitako diru-laguntza, egindako obraren fakturekin doitutakoa, 244.812 eurokoa izan zen; guztizko kopuruaren ehuneko 79,84.

Cárcar-Lerin goi tentsioko linea. Kontratu horren xedea izan zen aireko eta lurpeko linea berri bat egitea, industrialdearen zabalpen berriarentzako hornidura elektrikoa bermatzeko, egun da-goen banaketa-linea gainezka baitago.

Hasierako proiektua erasan eta desjabetze berrien ondorioz aldatu zen. Horrek gorantza aldatu zuen obraren kostua eta izapidetzea luzatu zuen. Ez dago jasota proiektua onetsi izana.

Osoko bilkurak 292.761 euroan esleitu zuen obra, BEZa barne; horrek ehuneko 35,15eko baja ekarri zuen. Obra-ziurtagiriek 298.126 euro egiten dute; hau da, ehuneko 1,8ko goranzko desbideratzea dago. Udalak kontratistari 216.351 euro ordaindu dizkio; esleitutako prezioaren 26 gutxiago da hori. Zenbatekoaren gainerakoa Iberdrolak esleitu zuen zuzenean, ziurtagiria deskontatuta. Proiektuaren erredakzioa, desjabetzeak, lizentziak eta ingurumen-azterlana zenbatuta, linearen kostua 396.102 eurokoa izan zen.

Cárcar-Lerin goi tentsioko linea	Zenbatekoa	Finantzaketa	Zenbatekoa
Obraren proiektua idaztea eta zuzendaritza	26.738	Toki administrazioak (hirurteko plana)	100.574
Ingurumen-azterlana	2.436	Agropecuaria Lerín	70.800
Desjabetzeak eta prezio-orria	62.859	Berrikuntza Departamentua	119.267
Lizentziak	5.944	Iberdrolari fakturatutakoa	81.774
Obra ziurtagiriak	298.126		372.415
		Udalak finantzatu beharrekoa	23.687
Guztira	396.102		396.102

Finantzaketa: Obra 2005-2008 urteetarako Toki Azpiegituren Planean sartu zen. Toki Administrazio Departamentuak 100.574 euro ordaindu zituen guztira. Berrikuntza Departamentuak, 2020rako Nafarroako III. Energia Planaren esparruan, 119.267 euro eman zituen, zeinak bateragarri baitira beste edozein diru-laguntzarekin, obraren guztizko kostuaren mugarekin.

Azkenik, Iberdrolaren ekarpenaz gainera, zeina finantzaketa planean aurreikusita baitago eta ziurtagiri batetik deskontatuta, aipatu den bezala, industrialdean ezarrita dagoen eta obraren onuraduna den merkataritza-enpresaren ordainketa bat lortu zen.

2015eko itxieran, 46.490 euro gelditzen dira ordaintzeko, zati bat esleipen-hartzaileari eta beste zati bat obra-zuzendaritzari. 2015ean, hartzekodun horiekin hitzartu da hileroko ordainketak egitea, 2016an zor guztia ordaindu arte.

Igerilekuetan zenbait obra egitea eta udal igerilekuetako aldagelen eraikina eraberritu eta egokitzea.

Bi proiektu independente dira, batera izapidetu zirenak. Osoko Bilkurak baldintza-orriak eta kontratazioa 2010eko urtarrilean onetsi zituen, 288.954 euroko prezioarekin (BEZik gabe) eta 80 eguneko epearekin. Bi proiektuak kontratista berari esleitu zitzaizkion.

Laburbilduz, honako hau izan da kontratuaren exekuzioa:

Aldagelak egokitzeko proiektua	Zenbatekoa
Proiektuaren erredakzioa	7.052
Obra-zuzendaritza	3.022
Obra ziurtagiriak	191.743
Aldagelak egokitzea, guztira	201.817
Igerilekuetan zenbait obra egiteko proiektua	Zenbatekoa
Proiektuaren idazketa	4.592
Obra-zuzendaritza	1.968
Obra ziurtagiriak	143.310
Igerilekuetan zenbait obra egitea, guztira	149.870
Bi proiektuen exekuzioa, guztira	351.687
Esleipenaren zenbatekoa, BEZarekin	335.053
Desbideratzea	% 0,10

Finantzaketa: Aldagelak eraberritu eta egokitzeko obra enplegurako eta tokiko iraunkortasunarako estatu-funtsaren bidez finantzatu zen, 201.817 euroko zenbatekoan. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak 149.870 euro ordaindu zituen. Bi kasuetan gastuaren guztizkorako dirulaguntza jaso zen.

Aipatutako espedienteen azterketa eginda, ondorioztatzen da Osoko Bilkurak onetsi zituela, prozedura murriztu negoziatu eta negoziatorik gabekoaren bidez izapidetu zirela, zenbait enpresari gonbit eginda, zenbatetsitako prezioaren arabera kontratuei buruzko araudian ezarritakoari jarraituz. Baldintza-orriak nahikoak dira kontratu-baldintzak eta esleipenerako irizpide eta prozedurak zehaztasunez definitzeko. Esleipena kontratazio-mahaiak proposatuta egin zen.

Hala eta guztiz ere, honako hobekuntza-puntu hauek aurkitu ditugu:

- *Kontratuak prestatzeko jarduketek ez dute jasotzen estali beharreko beharrak justifikatzeko txostenik, ez eta txosten juridikorik ere.*
- *Igerilekuetako eta aldageletako obra-kontratuan, ez da kontraturik egin, nahiz eta baldintza-orriak horretara behartzen zuen.*
- *Kontratazio mahaiak eskaintzak baloratu ditu baldintza administratibo partikularren orrian ezarritako esleipen-irizpideen arabera, puntuaketei buruzko taula bat erabiliz, baina irizpide horien aplikazioa arrazoiz justifikatu gabe.*
- *Oro har, behin-behineko eta behin betiko bermeak jaso egin dira. Azterketaren kariatara, ikusten da Udalak ez diola bere buruari eman abalen erregistro egokirik.*
- *Cárcar-Lerin linea elektrikoaren kontratuan izan ezik, orriek neurri handi batean baloratzen dituzte proposatutako hobekuntzak (puntuaketa-ehuneko 70 eta ehuneko 50). Hala eta guztiz ere, inongo txostenetan ez da haiek egiazki egin izanaren edo haien norainokoaren berri ematen.*
- *Udalak ez du gastu-proiektuen kontabilitate-modulua erabiltzen eta, horrenbestez, ez ditu kalkulatu aurrekontu-emaitzari eta diruzaintza-gerakinari egoztekoak zaizkien finantzaketa-desbideratzeak kalkulatu.*

IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK. UDAL ZERGAK.

Zergak

Udal zergak	Aitortutako eskubideak		Ehunekoa
	2015	2014	Aldaketa 2015/2014
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	56.603	54.801	3,3
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	276.649	279.521	-1,0
Ibilgailuak	107.255	108.057	-0,7
Lurren balio-gehikuntza	6.395	4.119	55,3
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	32.531	32.985	-1,4
EIOZa	25.720	17.157	49,9
Guztira	505.153	496.639	1,7

Nabarmena da gainbalioan eta EIOZean portzentualki gertatutako igoera; halere, zerga horiek oso aleatorioak dira, zeren eta lehenengo kasuan higiezinaren transmisio zergapekoen mende baitaude eta, bigarren kasuan, ekitaldian zehar egindako eraikuntza- edo berrikuntza-lanen mende.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak hartzen duen abanikoaren erdiko tartean daude, salbu eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kasuan, non karga eta eguneratzearen koefizientea beheko tartean baitaude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa		0,10 - 0,50
Landa-lurra	0,8	
Hiri-lurra	0,37	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,25	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,2	2tik 3,3ra
Zerga-tasa	8	8 - 20 bitartean
EIOZa	3,75	2-5

Lurraren kontribuzioa

Landa-lurren eta hiri-lurren tasak Osoko Bilkurak onetsi zituen eta 2014ko abenduaren NAOn argitaratu ziren.

2011ko azaroko Osoko Bilkuran erabaki zen katastro-balioen berrikuspena Tracasarekin kontratatzea. 2013an, balorazio-ponentziaren proiektua jendaurrean jarri zen. Ez zen behin betiko onetsi. 2015ean aplikatutako katastro-balioak 2002an onetsitako balorazio-ponentziari dagozkio. Hori dela eta, tasa desberdinak daude landa-lurretarako eta hiri-lurretarako.

Ondorioa da zerga-oinarria bat datorrela lurralde-aberastasuneko katastro-datuekin, eta aplikatutako tasa eta atera den kuota zuzenak direla. Borondatezko ordainketarako epea iraganda, legezkoa den gainkarga-tasa aplikatu da.

Diruzaintzan diru-bilketa dela-eta egiten den kontrola itzulketetara, daten arteko kobrantzetara eta ordaintzeko dauden saldoetara hedatzen da, eta egunero egiten da. Hala eta guztiz ere, kobrantzak garbiaren arabera kontabilizatzen dira. Kontabilitateak, hartara, informazioa galtzen du, zeren eta ez baititu erregistratzen diru-sarreraren itzulketak; halere, horren portzentajea, ehuneko 2,6, garrantzi txikikoa da.

Hona gure gomendioak:

- 2002ko balorazio-ponentziaren ordezk 2013an egindakoa, eguneraturik, erabiltzea.

EIOZa

Egindako lanetik ondorioztatzen da zuzenak direla zergaren ordainarazpena, udal arkitektoak txostenak eginda gauzatu dena, aurkeztutako aurrekontuen balizko doikuntzak eta, obra handia denez, exekuzio errealaeren berrikuspena.

IV.10. TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Tasak eta bestelako diru-sarrerak direla-eta aitortutako eskubideak 153.527 eurokoak dira – 2015eko ekitaldian aitortutako eskubide guztien ehuneko 9,58–; horrenbestez, 2014koen aldean, ehuneko 1,37 egin dute behera.

Ez dago jasota kostuen azterlanik egin denik, 2015ean aplikatutako tasen eta prezio publikoen tarifak bermatzen dituenik.

Honako lagin hau egiaztatu dugu –3. kapituluari aitortutako eskubideen ehuneko 63,6 da–:

Kontzeptua	Gastua 2015ean
Kirol instalazioak	31.206
Musika eskola	23.666
0-3 urteko haur eskola	21.262
Bestelako diru-sarrerak	21.576
Guztira	97.710

Kirol instalazioak

Lerinek udako igerilekuak, gimnasioa, pilotalekua eta kiroldegia dauzka, guztiak ere udal titularitasunekoak. 2013an esleipen-hartzaile suertatu zen merkataritza-enpresa batek kudeatzen ditu. Igerilekuak 29.500 euroko gastua dakarkio Udalari; gainerako instalazioek, berriz, 19.950 euroko gastua.

Bi ordenantza fiskalek, Osoko Bilkurak 2014ko abenduaren 1ean onetsiek, igerilekua eta gainerako kirol instalazioak erabiltzeko tarifak, hobariak eta salbuespenak ezartzen dituzte. Bi instalazio mota horietan, eguneko sarreren abonua bereizita daude.

Igerilekuetako abonua berariazko aplikazio informatiko baten bitartez kudeatzen dira. Egindako azterketatik, ondorioztatzen da honako hauek zuzenak direla: ordainarazpena, onetsitako tarifen arabera baita; alkatetzak diru-sarreren itzulketak direla eta egindako justifikazioa eta onespina; diru-bilketaren gaineko kontrola, eta emaitza-zenbatekoen kontabilizatzeko egokia.

Gainerako kirol instalazioetako abonua kobratzeko ezarritako prozedurak ez dio biderik ematen Udalari inguruabarrak kontrolatzeko –errolatzea, ezkontza...–; izan ere, halakoek tarifaren zenbatekoa determinatzen dute, ordenantzaren arabera.

Sarreren eguneroko salmentaren bidezko diru-sarrerak justifikatuta daude instalazioetako arduradunek egiten dituzten aldizkako likidazioetan.

Musika eskola

Musika Eskolaren tasak Osoko Bilkurak onetsi zituen eta NAOari argitaratu ziren, lehenengo 2014-15eko urritik ekainerako ikasturterako eta gero 2015-2016ko urritik ekainerako ikasturterako. Bi ikasmailatan matrikulatutako ikasleak 43 ziren.

Egindako lanetik ondorioztatzen da ordainarazpena zuzena izan dela, ordenantzan ezarritako tarifen, ordainarazpenen eta hobarien arabera. Aitortuta eta kobratuta dauden eskubideen kontabilizatzea diru-bilketaren datuetan oinarrituta dago.

0-3 urteko haur eskola

Hezkuntzako kontseilariaren 17/2014 Foru Aginduak 2014/2015 ikasturterako tarifak onetsi zituen, uztaiera artekoak; 5/2015 Foru Aginduak, berriz, 2015/2016 ikasturteko irailetik aurrerakoak onetsi zituen.

Gure ondorioa da ordainarazpena zuzena dela, aipatutako araudian ezarritako tarifen arabera. Aitortuta eta kobratuta dauden eskubideen kontabilizatzea diru-bilketaren datuetan oinarrituta dago, eta bat dator matrikulazio-zerrendekin.

Ikasturtea utziz gero, alkatetzaren ebazpen batez baja ematea agintzen da eta jarritako fidantza atxiki egiten da –hileko baten adinakoa da–. Fidantza horiek aurrekontuz kanpoko diru-sarreretan kontabilizatuta daude, eta bajarekin bidezko da haiek ezeztatzea eta aurrekontuari aplikatzea; halakorik ez da egin, ordea.

Bestelako diru-sarrerak

Sei zenbateko handienak hautatu ditugu, guztizkoaren ehuneko 80 egiten dutenak.

	Aitortutako eskubideak
Leringo antzinako argazkien liburuaren eta CDaren salmenta	5.689
Gizarte Segurantzaren kotizazioa dela-eta egindako diru-sarrera okerrak itzultzea	4.503
Pilota-partidaren diru-bilketa	4.320
Futbol zelaiko kalteak direla-eta aseguru-enpresak ordaindutakoa	1.058
Ureztaketaren kuota (2011-2014 urteetako Entre Dos Ríos finkaren errentari dagokiona)	907
Osasunerako zentimoa	838
	17.315

Kontabilizatutako diru-sarrerak aipatutako izendapena dute. Dokumentuen bidez justifikatuta daude eta kobratu egin dira.

Batzuetan Udalaren ekintzetatik sortuak dira (Lerini buruzko liburua, pilota-partidaren diru-bilketa). Gainerako kasuak Udalak errekamazioa egin eta dena delakoak –Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak, aseguru konpainiak, udal finkaren errentariak edo Foru Ogasunak– emandako erantzunetik datoz.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kostu-azterlanetan aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa justifikatzea.*
- *Aurrekontuari aplikatzea haur eskolaren tasa-dela eta atxikitako fidantzak.*

Kirol instalazioen abonua direla-eta aplikatzekoa den tarifa zehazten duten inguruabar pertsonalak egiaztatzea.

IV.11. TRANSFERENTZIEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

2015ean ez da kapital-transferentziarik izan; 2014an, ordea, 119.267 euro aitortu ziren.

Transferentzia arruntek ekitaldiko diru-sarreraren ehuneko 49 egiten dute. Honako hau izan da haien exekuzioa:

	Aitortutako eskubideak		Ehunekoa
	2015	2014	Aldea
Estatuko tributuetako partaidetza	2.256	2.256	0,0
Hauteskunde erroldarako Estatuko Estatistika Institutuak emandako diru-laguntza	37	38	-1,2
Nafarroako Gobernuak: aurreko urteetako BEZaren itzulketa		18.799	-100,0
Nafarroako Gobernuak mediku-kontsultategiaren funtzionamendua dela-eta emandako diru-laguntza	6.197	6.215	-0,3
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza Artea eta Kultura programa dela-eta	1.690	1.690	0,0
Nafarroako Gobernuak bake epaitegiaren gastuak direla-eta egindako ordainketa	3.808	3.815	-0,2
Nafarroako Gobernuko NKGIak kirol jardueretarako emandako diru-laguntza	2.222	0	
Nafarroako Gobernuak udalbatzako kideak ordaintzeko emandako diru-laguntza	19.060	19.073	-0,1
Montepioaren defizita ordaintzeko Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza	34.814	33.235	4,7
Langabetuak kontratatuzko Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza		34.400	-100,0
Osasun-prebentziorako programak	412	0	
0-3 urtekoen hezkuntza	28.291	50.491	-44,0
Musika eskola	3.907	5.364	-27,2
Toki ogasunen funtseko partaidetza	476.019	476.019	0,0
Araztegiaren fakturaren itzulketa	207.589	56.927	264,7
Guztira	786.302	706.322	11,3

Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak, kapitulu honen ehuneko 73 egiten dutenak, haren kontabilitatean egiaztatuta daude.

0-3 urtekoen hezkuntzarako diru-laguntza 2.102 euro gutxiago baloratuta dago. Zenbateko hori Hezkuntza Departamentuak 2014/2015 ikasturterako egindako erregularizazioaren ondorioa da. Udalak zenbateko hori aitortzen du aplikatzeko dauden diru-sarreratzat hartuta, zeren eta Departamentuak hurrengo urteko diru-laguntzatik deskontatuko baitu.

Araztegiaren fakturaren itzulketa. Industrialdeko udal araztegitik heldutako gastuak –enpresa bakarrak erabiltzen du araztegi hori– enpresa horrek Udalari itzultzen dizkio. Udal aurrekontuaren gastuen kontu-sailean erregistratutako zenbatekoa bat dator zehatz-mehatz diru-sarreraren kontu-sail horretan aitortutakoarekin. Zenbateko horretatik, ehuneko 81 inbertsio-obretarako gastuak dira, zeinak inbertsioen 6. kapituluaren kontabilizatu beharko baitziren; horrenbestez, haien itzulketa, kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera gisa aitortu beharko zen.

IV.12. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Kapitulu horretan aitortutako diru-sarrerek 150.518 euro egiten dute, eta aurrekontuko zenbatekoaren ehuneko 100 dira. 2014an, diru-sarrera 155.504 eurokoa izan zen. Jaitsieraren arrazoia da telefonia mugikorrerako lursailen alokairua dela-eta bildutako kopuruak behera egiten duela.

Herri-lurren aprobetxamenduek kapituluaren aitortutako eskubideen ehuneko 90,4 egiten dute. Honako hauek dira haien exekuzioen xehetasunak:

Herri-lurren aprobetxamenduak	Aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)
Laboreetarako herri-lurretako lursailen kanona	75.165	74.037	-1,50
Herri-lurretako gainerako lursailen kanona	33.476	39.432	17,79
Herri-lurretako larreen errentamendua (bazkalekuak)	20.700	22.600	9,18
	129.341	136.068	5,20

Lerinek, 1992tik, herri-lurrak arautzeko ordenantza bat dauka. Osoko Bilkurak 1998an, 2000n, 2002an eta 2005ean aldatu zuen.

Leringo herri-lurrek 3.667 hektarea dauzkate. Azalera horrek bidezko egiten du herri-lurren loten esleitzea udalerriko familia-unitate guztiei; horrenbestez, ez da aplikatzen bizilagunen lehen-tasuneko aprobetxamenduaren modalitatea, zeina lotuta egoten baita familiak diru-sarrera txikiak edukitzearekin. Modalitate hori ordenantzan eta araudian jasota dago.

Leringo Udalak Tracasaren aplikazio informatiko bat badauka, herri-lurren kudeaketarako. 2011n egin da eta 2012an instalatu zen. Aplikazio horrek datu finkoak –azalera, poligonoak eta katastro-erreferentziak– lotzen ditu dauden loteen eta partikular edo elkarte esleipen-hartzaileen datu eguneragarriekin. Aplikazioak aukera ematen du une bakoitzean jakiteko zein den onuradun bakoitzari esleitutako lurzati, gertatutako altak eta bajak, labore mota eta sobran geratu diren lurzatiak, besteak beste.

Aplikazioaren hasierako datuen arabera (2011koak dira), Leringo herri-lurrak honela zeuden xehakaturik: Udalak kontrolatutako azalera, kanona sortzen zuena, 1.412 Ha-koa zen. Belarretarako 88 hektarea erabiltzen ziren. 14 hektarea Udalaren ondare-jabetzakoak ziren eta 93 hektarea herri-lurretakoak eta kalitate txikikoak ziren. Herri-lurretako 300 hektarea landatuta zeuden, baina Udalak ez zekien haietan halako laborerik zegoenik, eta 31 hektarea landatuta zauden baina kanona ordaindu gabe zegoen. Gainerakoa, katastroan inskribatutako 3.667 ha-ko kopurura arte, bazkalekuek eta aprobetxamendurik ez zuten herri-lurrek osatzen zuten (bideak, pinudiak, baltsak...).

Udalak ez ditu ez mantendu, ez eguneratu hasiera batean erregistratutako datuak. Ateratzen dugun ondorioa da landatutako herri-lur guztiak ez zeudela behar bezala kontrolatuta.

- Laboreetarako herri-lurretako lursailen kanona

Zuzeneko esleipenaren bitarteko herri-lurren aprobetxamenduen gaineko kanona adierazten duen kontu-sailak 74.036 euroko eskubideak eta 73.218 euroko kobrantzak aitortzen ditu. Kopuruek bat datoz diru-bilketaren aplikazioaren bidez lortutakoekin.

Egindako ordainagirien erroldaren arabera, 596 zergaduni bidali zitzaizkien ordainagiriak 1.192 hektarea direla eta, bi hektareako loteen arabera; horrekin, ordenantzaren aurka ari da, zeren eta hartan loteetarako azalera desberdinak bereizten baitira, landarearen arabera: zerealak, mahastiak, zainzuriak eta abar.

Kanonaren zenbatekoak bat datoz 2015erako onetsi eta NAOn argitaratu direnekin.

Aprobetxamendu horien kudeaketak bere baitan hartzen du ordenantzan ezarritako baldintzak betetzea, salbu eta urtean gutxienez ere bederatzi hilabetez Lerinen bizileku efektiboa edukitzeari dagokionez. Ordenantzaren 73. artikulua ezartzen du aprobetxamenduari amaiera emanen zaiola haren gozapenerako baldintzak geroztik urratzen badira; halakorik ez da aplikatzen, ordea.

Ez dago jasota egiaztatzen denik onuraduna izatea lurak zuzenean eta pertsonalki landatzen dituen, bere kabuz nahiz lantalde zein kooperatibetan elkartuta; izan ere, laboreak laga edo apartzeria eginez gero, desjabetzeko eta lurak itzultzeko espedientea ireki beharko litzateke.

- Herri-lurretako gainerako lursailen kanona

Osoko Bilkurak interesdunek eskatuta egindako esleipenen kanona jasotzen du, aurrez egiaztatuta herri-lurak sobran daudela eta onuraduna izateko baldintzak betetzen direla. Esleipena eskatutako eperako egiten da, 2016ko mugarekin; izan ere, ekitaldi horretan herri-lurren esleipena bukatuko litzateke.

Aurrekontuan kontabilizatutako kontzeptuak eta zenbatekoak bat datoz diru-bilketaren aplikaziorako zerrendekin.

- Herri-lurretako larreen (bazkalekuak) kanona

Kontabilizatu den 22.600 euroko kopurua bat dator diru-bilketaren errondan datozenekin. Kobrantzak, identitateari eta zenbatekoari begiruatuta, bat datoz Osoko Bilkurak 2015eko martxoan egindako esleipenekin, zeinak 13.955 eurokoak baitira. Ondoz ondoko hiru enkante egin ziren, NAO n iragarkia jarri ondoren. Eman gabe geratu ziren. Hori dela eta, udaro eskatutako guztiei esleitu zaizkie, lizitazio-prezioran.

Gainerako 8.645 euroak Osoko Bilkurak 2008an egindako zortzi urteko esleipen bati dagozkio; esleipen horrek 2016an du muga-eguna. Zenbatekoa balorazio independente baten bitartez erabaki zen; Udalak eskatuta, Instituto Técnico de Gestión Agrícola sozietate publikoak egin zuen balorazio hori. Kobrantza balorazio hori dagokio.

Hona gure gomendioak:

- *Herri-lurak kontrolatzeko dagoen tresna eguneratu eta erabiltzea, zeren eta 2016an herri-lurren esleipenak iraungitzen baitira, eta orduan beste esleipen batzuk egin behar baitira.*

- *Geroztik herri-lurak erabiltzeko baldintzak direla-eta izan diren ez betetzeak kontrolatzea; esate baterako, laboreak lagatzeko edo apartzeriako balizko kasuak.*

IV.13. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEAN ONDORIOZKO DIRU-SARRERAK

Kapitulu honek kontu-sail bakarra dauka: "Nafarroako ubiderako desjabetzea". Printzipioz, Leringo herri-lurretako lurzatiaren desjabetzeak direla-eta Nafarroako Gobernuak kobratutakoak jasotzen ditu. Gehienetan, akueduktu bat eta lurpeko linea elektriko bat egiteko zortasunak eratzeko eginak dira.

Aitortutako eskubideak bat datoz ordainketako eta behin betiko okupazioko akten zenbatekoen baturarekin. Kobrantzen ehuneko zortzi lurak aldi baterako okupatzeko ordainketak dira.

IV.14. IBILGETUA. INBENTARIOA

Balantzeko ibilgetuaren saldoa 16.556.413 eurokoa da; 2014ko itxieran, ordea, 16.653.504 eurokoa zen.

7.092 euroko aldea zor zaie Nafarroako Gobernuak Nafarroako ubiderako egindako desjabetzeengatik inbertsioak besterentzearen diru-sarrerei Ibilgetuan baja horiek hiri-higiezinei aplikatzen zaizkie, nahiz eta herri-lurrei aplikatu beharko litzatekeen.

"Animaliak" atalean, balio higigarriak jasotzen dira; hori dela eta, haien egozpena zuzendu beharko litzateke.

Higiezina oinarrituta dago ondasun eta eskubideen inbentario baloratu batean, zeina Osoko Bilkurak onetsi baitzuen 2011n. Udaltza berri bakoitzak jabetza hartu aurreko ekitaldiaren itxieran eguneratzen da; kasu honetan, 2014ko abenduan.

Gomendatzen dugu inbentarioa ekitaldi bakoitzaren amaieran eguneratzea.

IV.15. ITXITAKO AURREKONTUETAKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Itxitako diru-sarreraren aurrekontuak 2015aren hasieran 228.214 euroko saldoa dauka; ekitaldian zehar, -2.904 euro aldatzen da, eta Udalak 50.337 kobratzen ditu, ehuneko 21,8, zeinak, gehien bat, 2014an jatorria duten eskubideei baitagozkie.

Zordunen lagin bat egiaztatu dugu, 55.085 eurokoa. Kasu guztietan, edo hasierako kontabilitatearen akatsak, edo kobratzeko inolako ekintzarik egin ez den eskubideak dira. Saldoak berrikusi eta garbitu behar dira.

Gastuen aurrekontu itxiak 2015ean 529.450 euroko hasierako saldoa dauka. Ekitaldian zehar, Udalak 341.224 euro ordaindu ditu; ehuneko 64,4. 2015aren itxieran, ordaintzeko dagoen zenbatekoa 188.226 eurokoa da; hain zuzen ere ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 11,8. Horri 2015eko aurrekontu-hartzekodunak gehituz gero, 199.230 euro, 2016ko hasierako itxitakoen saldo hartzekoduna 387.456 eurokoa da, diru-sarrera arrunten ehuneko 24,3. Saldo horiek eraglna dute diruzaintzako gerakinaren zenbateko negatiboan.

Ordaintzeko dauden saldoen ehuneko 97 berrikusi ditugu. Guztiak kasuko fakturan edo obra-ziurtagirian daude oinarrituta, eta ordainketa partzialaren agirian, aldez aurrekoan, halakorik izanez gero. Saldo zaharrena 2009koa da; 2010eko bat dago, eta 2011ko bat baino gehiago daude.

Amaierako saldotik, 84.014 euro hartzekodunek kobratu zituzten estatuko hornitzaileentzako ordainketa-funtsaren kargura; hori erregularizatu egin beharko litzateke. Funtsak hornitzaileei Udalarri egindako mailegu baten kargura ordaintzen die. Zor hori behar bezala kontabilizatu beharra dago.

Gomendatzen dugu itxitako diru-sarreraren saldoak garbitzea. Hartzekodunen saldoa erregularizatu beharra dago, haien kreditua Kreditu Ofizialaren Institutuak ordaindu dituenean.

IV.16. AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Aplikatzeko dauden diru-sarrek 8.381 euroko saldoa dute itxieran. Horren ehuneko 96 bi eragiketari dagozkie: batetik, 2015eko abenduan Udalak 6.033 euro kobratzea bere aseguru konpainiaren eskutik eta gero diru hori, 2016an, ordaintzea zuhaitz baten erorketak kaltetutako partikular bati; bestetik, Nafarroako Gobernuak haur eskolari emandako 2.012 euroko diru-laguntza erregularizatzea: hurrengo ikasturteko diru-laguntzan beherapena eginez berdinduko da.

Eragiketa horiek egoki dokumentatuta eta kontabilizatuta daude.

2015eko itxieran, jasotako fidantzen saldoa 23.115 eurokoa da. Ez dago kontabilitatez kanpoko erregistrorik, bermeetako bakoitza identifikatzen duenik. 2013ko urtariletik aurrera, banaka kontabilizatzen dira jada.

Ekitaldian zehar ez da 2013an erregistratutakoetatik fidantza bakarra ezeztatu. 3.038 euro dira. 2014an jatorria dutenak ekitaldian ezeztatu dira, salbu eta 303 euro, haur eskolatik heldu direnak; izan ere, horiek aurrekontuari aplikatuz erregularizatu beharrekoak dira.

Gomendatzen dugu kontabilitatez kanpoko erregistro bat egitea hasierako saldoan bildutako fidantzen xehakatzearekin –2012koak eta lehenagokoak–.

IV.17. ZORRA

Finantza-entitateekiko zorra, ekitaldiaren itxieran, 1.290.096 eurokoa da; hain zuzen ere diru-sarrerara arrunten ehuneko 80,8. Hona xehetasunak:

Entitae mailegu-emailea	Zertarakoa	Emandakoa	Eman de- neko data	Muga-eguna	2015eko zorra
BCL	El Saso industrialdearen urbanizazioa	1.068.063	2005/06/06	2025/06/06	593.366
Nafarroako Rural Kutxa	Gizarte-etxea eraikitzea	321.867	2006/11/30	1931/11/30	231.744
B. Santander	Zenbait obratarako mailegua	153.520	2003/01/27	2018/01/27	30.704
La Caixa	Lurzatiaren kanpo-itxitura	131.747	2006/11/30	1931/11/30	91.650
La Caixa	Kirol parkeko obrak	158.474	1999/12/31	2019/12/31	23.771
Nafarroako Rural Kutxa	Inbertsioak finantzatzea	250.000	2014/03/26	2024/05/31	229.845
Zor bizia		2.083.670			1.201.080
ICO MINHAP mailegua	Hornitzaileei ordaintzea				89.016
Guztira					1.290.096

Udalaren zorpetzea aurreko urteetatik –2005 eta 2006– heldu da, eta haren xedea izan zen inbertsioak finantzatzea. Horretaz gainera, 2014ko mailegu bat badago, muga-egunera iristekotan zegoen kreditu bat ezeztatzeko.

Saldoak finantza-entitateek berretsi dituzte.

- ICO-MIHAP mailegua, hornitzaileei finantzaketarako estatu-funtsaren kargura ordaintzeko.

Leringo Udalaren 2013ko apirilko Osoko Bilkurak erabaki zuen hornitzaileei ordaintzeko likidezia-mekanismo bereziari atxikitzea, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Foru Komunitatearen arteko lankidetzat hitzarmenari eta aplikatzekoa den gainerako araudiari jarraituz.¹

Lau hornitzaile sartu ziren, 2010eko eta 2011ko fakturak zituztenak; guztira, 89.016 euro egiten zuten. Inguruabar hori Foru Administrazioaren aurrean ziurtatu zen, eta zorrari buruzko kasuko ziurtagiriak egin ziren. Udalak beharrezko den doikuntza-plana aurkeztu zuen. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak haren aurkako txostena egin zuen. Udalaren zerbitzuek ulertu zuten ezezkoa emana zietela finantzaketa-funtsera sartzeko.

Hala eta guztiz ere, denborarekin, Udalak jakin du ukitutako hornitzaileek beren zorra kobratu dutela Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren (MINHAP) eskutik, Kreditu Ofizialaren Institutuaren (ICO) bitartez, Udalari halakorik jakinarazi ez arren. Hartara, merkataritza-zorra finantza-zor bihurtu zen, eta Udala ministerioaren zordun bilakatu zen.

Aipatutako araudiaren arabera, eragiketarako Udalarentzako mailegu bat sortu du, gehienez ere 10 urteko epean amortizatuzkoa, bi urteko gabealdiarekin. Hala eta guztiz ere, doikuntza plana dela-eta aurkako balorazioa egiten bada, ministerioak hornitzaileei ordaindutako zorra toki entitate zordunengandik berreskuratuko da Estatuko tributuetako partaidetzan atxikipena ginez.

2013tik 2015era doazen ekitaldietan, Estatuko tributuetako partaidetzaren kontu-saileko atxikipena 5.002 eurokoa izan da –kopuru hori interesari dagokien guztiz–, tributuetako partaidetzari egotziak; haren kontabilitateko ordaina hornitzaileei aurrekontu itxietan egidako ordainketa izan zen. Egozpen hori zuzendu beharra dago, zenbatekoa zorraren interesari aplikatuz.

Gomendatzen dugu diru-sarreraren aurrekontuan printzipalaren zenbatekoa aitortzea, finantza-pasiboaren aldaketan ondorioz, ordainean aurrekontu itxietan lau hornitzaileei ordaintzeko dagoen zenbatekoa jasota, behin horietako bati oker egotzitako maileguaren interesak zuzendu ondoren.

¹ 4/2012 Errege Lege-dekretua eta 7/2012 Errege Lege-dekretua

IV.18. FINANTZA-KONTUAK

Finantza-kontuek 142.248 euroko amaierako saldoa dute. Horretan, banaketa-kontuaren saldoa sartzen da, itxieran 3.146 euro dituen. Berresten ditugu finantza-entitateekiko saldoak eta Nafarroako Gobernuarekiko banaketa-kontuko saldoak.

Urtearen bukaeran, kontuen arteko zenbait intsuldaketa eta haiek koadratzeko erregularizazio-ohar batzuk egiten dira. Eragiketa horiek ez lirateke beharrezkoak izango diruzaintzaren eta kontabilitatearen hileroko edo hiru hilez behingoko berdinkatzeak egiten balira.

2013ko otsailean, Udalak finantza-entitate batean dauzkan bi kontuk 70.000 euroko eta 50.000 euroko ordainketak izan zituzten. Data horretan bi kontuek batera zeukaten saldoa 3,68 eurokoa zen. Entitate horrekin itundutako aurrerakin gisa kontabilizatu ziren.

Martxoaren 12an eta apirilaren 17an aipatutako kontuetako batek 120.000 euroko gehi 868 euroko karguak izan zituen guztira. Kontabilitatean aurrerakinaren eta aurrerakin horren interesen itzulketa gisa ageri dira, hurrenez hurren.

Lehenengo karguaren datatik aurrera, diruzainak idatziz jasotzen du ez dakiela zein direndiru horren ez jatorria, ez zertarakoa, zeren eta hura justifikatzen duen dokumentaziorik ez baitago, eragiketa horiek beste probintzia batetik egin baitzituen orduan alkatea zenak. Argudio hori diruzaintzaren ondoz ondoko txostenetan berresten da kontura egindako kargu bakoitzerako.

2013ko apirileko osoko bilkura batean eragiketa horri buruz galdetu ziotenean, alkateak baieztatu zuen aurrerakin bati zegozkiola, eta egokiagoa izanen zela urte bukaeran kreditu-kontu ezeztagarri bat ireki izana.

Kargu horiek, neurri batean, 165.000 euroko mailegu batekin finantzatu ziren. Mailegu hori finantza-entitate batekin itundu zen. Hura gorabehera, kontuko saldoa negatiboa izan zen, etenik gabe, gutxienez ere 2013ko apirilaren amaierara arte.

Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

- Jasota ageri da bost idatzoharrak alkateak eginak direla, finantza-entitate bateko langile gisa, Errioxako sukurtsal batetik.
- Bankuko barne-eragiketa bat erabili zen horretarako; hori dela eta, ez dago jasota haien ordaineko konturik, ez eta titularren identitatea ere.
- Oharrak ez datoz bat finantza-entitatearekin egindako aurrerakinako edo diruzaintzako inongo eragiketarekin.
- Jokabide hori ohi ez bezalakoa da. Udalak bere aginduak urrutiko bankaren bidez egiten ditu, gako batzuen bitartez, edo Leringo sukurtsalean, kontuei buruzko kasuko aginduak sinatuz.

Horrenbestez, aipatutako eragiketen erregularatasuna zalantzazkoa da, bereziki interesen ordainketarena, zeren eta ez baitago inongo titulutan oinarrituta.

2013ko ekitaldian, "Kontuetako saldo hartzekodunarengatik interesak" kontu-sailak 3.445 euroko berandutze-interesak eta agerikoak islatzen zituen; halakoak bat datoz Udalaren diruzaintza-beharrekin, zeinak funtsen intsuldaketetan, Rural Kutxaren "aurrerakinean" eta abarretan islatzen baitira.

Udalbatza berria sartzearekin, Udaleko zerbitzuek Udalak kontuak dituen finantza-entitateei Osoko Bilkuraren erabaki bat jakinarazi zieten; haren arabera baimena ematen da alkatearen, idazkariaren eta diruzainaren baterako sinadura erabiltzeko funts publikoak erabiltzeko. Banku guztiek ez zieten baja eman aurre baimenduta zeuden sinadurei.

Diru-bilketaren eta diruzaintzaren arteko aldizkako berdinkatzeak egitea gomendatzen dugu.

IV.19. HIRIGINTZA

Leringo Udalak hirigintza-lanak bere baliabideekin egiten ditu. Gainera, kanpo-aholkularitza bat badauka, arkitekto batena, ordukakoa; 26.953 euroko kostua izan zuen horrek 2015ean.

2015ean hirigintza dela-eta izandako diru-sarrerak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira.

	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2015	2014	2015/2014
EIOZa	25.720	17.157	49,9
Hirigintzaren arloko izapidetzeak	9.233	5.465	69,0
Lehen okupazioko lizentzia	1.266	971	30,4
Jarduera-lizentziak	801	910	-12,0
Xehetasun azterlanak	758	1.510	-49,8
Guztira	37.778	26.013	45,2

Lerin Ebroren Ardatzaren 5. Lurralde Antolamenduko Planeko Ega izeneko 3. arloan dago sartuta, antzeko ezaugarri tipologikoak eta demografikoak dituzten beste hirigune batzuekin batera. Haien hiri-sistemen ezaugarriak dira alde zaharrak zaharkituta egotea, enpresak eta biltegiak hirigunean kokatuta egotea, lurraren erabilerak segregatzeko gero eta prozesu gehiago egotea eta eraikin-mota berriak –esate baterako, familia bakarreko etxebizitzak– egiteko joera orokorra. Ekoizpen jarduera orokorra nekazaritzakoa eta nekazaritza-industriakoa da.

Udalaren hirigintza plan indardunari 2003an eman zitzaion behin betiko onespena. Udal planaren araudiategina 2014ko azaroan argitaratu zen NAOn.

Honako hauek ziren udal planaren hasierako aurreikuspenak:

Unitate kopurua		Azalera garbia (m ²)
15	Etxebizitza-jarduketa	34.724
2	Industria-jarduketa	4.223
4	Jada finkatuta dauden zuzkidura-jarduketak	51.157
21	Hiri-lurzorua	90.104
1	Etxebizitzetarako lurzoru urbanizagarria	8.463
5	Industriarako lurzoru urbanizagarria	146.227
6	Lurzoru urbanizagarria	154.690

Onetsi zenetik 2015eko itxierara arte, plana honako tresna hauen bitartez garatu da:

Tresna	Kopurua
Udal planaren aldaketak	15
Plan bereziak erabilia.	1
Xehetasun azterlanak	6
Birzaitze proiektuak	2
Hirigintza proiektuak	2
Garapeneko tresnak, guztira	26

Udal plan indardunaren garapen-graduaren oinarriko erreferentziak hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian etorkizuneko etxebizitzaren balizko kopurua eta industria-lurzoruan erabilgarri dauden azalera izan daitezke. Honako taula hauetan aipatzen dira:

Etxebizitzarako lurzoru urbanizagarria	Egin daitezkeen etxebizitzaren kopurua
Alde historikoko/zaharreko arloa	100
Hirigunearen inguruko arloa	195
Etxebizitzaren gehieneko kopuruaren zenbatespena	295

Hirigune historikoaren esparruko etxebizitzetatik ehuneko 20 hutsik daude eta ehuneko 40 egoera txarrean daude. Eraberritze prozesuen bitartez, jotzen da 100 etxebizitza inguru egin daitezkeela arlo horretan.

Hirigunearen inguruan, UR1 arloa garatuta dago eta ez du etxebizitza gehiagorik onartzen. Gainerako arloek –UR2etik UR15era eta SR1– alde aurretiko hirigintza-garapena, birzatatzea eta urbanizatzea behar dituzte. 195 dira gehienegoko egin daitezkeen etxebizitzak.

Erabilgarri dagoen industria-lurzoruari dagokionez:

El Sason garatutako industria-lurzorua	Udal plana (m ²)	Erabilgarri (m ²)
A ARLOA (banaezina eta titulartasun bakarrekoa)	60.000	0
B ARLOA	60.277	58.446
Aldez aurretiko garapena eginda erabilgarri dagoen industria-lurzorua		Erabilgarri (m ²)
Erabiltzen dagoen lurzoru, garatu beharrekoa		34.016

Garatutako industria-lurzorua, zuzeneko ezarpenekoa, udal titulartasunekoa da. B arloan 58.446 m² daude erabilgarri. B2 arloa 1.831 m²ekin garatu zen.

Erabilgarri dagoen industria-lurzoru garatu gabeak honako hauek behar ditu: birzatatzea, kasu bada; finkak normalizatzea, eta urbanizatzea eta zerbitzuak zuzkitzea, 3.B industria-sektorean izan ezik, zeren eta hura garatu egin baitzen eta azalera librerik ez baitu.

Azkenik, 4. industria-sektorearen ingurunean, industria-lurzoru finkatua dago (3.335 m²), zeina erakikinek guztiz okupatuta baitago; horietatik, ehuneko 40 inguru jarduerarik gabe daude, enpresak itxi egin direlako. Baliagarri daudela jotzen da.

Aurreko datuetatik ondorioztatzen da udal plana ez dagoela agortuta: garapeneko eta edozein motatako eraikuntzako esku-hartzeak egin daitezke.

Udalaren arkitekto aholku-emailearen arabera, landa-inguruetan zaina da eskaria behar bezain altua izatea unitate “handien” garapena bideragarri egiteko. Jotzen du antolamenduan aldatetaren bat egitea baloratu behar dela –hiri-jarduketako planak, 5/2015 Foru Legeak sartutakoak–, eta ahaleginak egin behar direla unitate batzuen tamaina gutxitzeko, haien kudeaketa errazte aldera.

Udal planak indarra izan duen bitartean gertatu den bilakaera sozioekonomikoak haren garapena baldintzatzen du. Horri dagokionez, Leringo populazioak hazkunde-tasa negatiboak izan ditu 1983tik. 1985era arte, populazioa 2.000 biztanletik gorakoa zen. 2015ean, 1.665 biztanle ditu. Serieko kopuru txikiena da. Zenbateko horren eta 1995. urtekoaren artean, populazioak ehuneko 24,7 egin du behera.

2015ean, mendetasunaren tasa –14 urte edo gutxiago eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen kopurua zati 14 eta 65 urte artekoen kopurua, horixe baita populazio produktiboa, zeinaren mendean baitaude besteak– ehuneko 68,8 da. Haur populazioaren mendetasunaren tasa, berriz, ehuneko 9,1ekoa da.

2013ko datuen arabera, biztanleen batez besteko adina 49,6 urtekoa zen eta atzeritarrak ehuneko 11,3 dira.

- 2015ean onetsitako hirigintza-tresnak.

Udalak 2015ean udal planaren bi aldaketa eta xehetasun azterlan bat onetsi ditu.

Lehenengo aldaketaren sustatzaile partikularrak abereentzako nabe bat berrabiltzeko aukera argudiatu zuen. Nabe hori, udal planaren aurretik zegoen, eta finkatutako eraikin bat da. Lurzoru urbaniezaezin orokorrean kokatuta dago, non granjak ezartzea debeku baita.

Udal zerbitzuek eskaera izapidetu zuten lurzoru urbanizaezinari buruzko planeko arau eta ordenantza partikularren zehaztapen xekakatuaren aldaketa puntual baten moduan. Espedienteak egiaztaten du aldaketa mota horietarako araudiak ezarritako prozeduraren betetze bat dela.

Aldaketa behin betiko onetsita, bidali egin zitzaion lurraldearen antolamenduaren arloko departamentu eskudunari, erregistra zezan. Horrek hari buruzko txosten negatiboa egin zuen, zeren eta jo baitzuen aldaketa egituratzailea zela eta ez xehakaturia, zeren eta lurzoru urbanizaezinari buruzko babes neurrietan eragiten baitzuen; izan ere, lurzoru horrek eraikinen izaera isolatua bermatzen du. Gehitzen du abeltzaintza-jarduera zehatz bat lurzati jakin batean ezartzea justifikatzen dela, baina dela nahikoa justifikatzen hura granjak debeku diren arlo guztira zabaltzea.

Horren aurrean, arkitekto aholku-emaileak proposatzen du dokumentazioa zuentzea adierazitakoaren ildotik, eta jarduera-espediterearen izapidetzea geraraztea.

Aldaketa, horrenbestez, lotuta dago Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoaren erabakia aurkaratzeko prozedurarekin. Aldaketa behin betiko onesteko eskumena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariarena da.

Udal planaren bigarren aldaketak helburu du planean hiri lurzoru finkatuan elkarren ondoan dauden bi lurzatiarako ezarritako dauden lerrokatzeak aldatzea. Partikular batek sustatu du.

Hirigintza-araudiak “hiri-bilbeen definizio zehatza, bereziki eraikinen eta bide-elementuen lerrokatzea eta sestra-lerroen bidezkoa” jasotzen du antolamendu xehakaturiko zehaztapenen aldaketan.

Haren izapidetzea legean agindutako prozedurari egokitu behar zaio.

Onetsitako xehetasun azterlanak helburu du kasuko lurzatiaren bolumen eraikigarriak antolatzea eta egituratzea, alakaren dimentsioak eta aurreikusitako eraikinaren hegala definituz.

Xehetasun azterlana da tresna egokia, eta haren izapidetzea zuzena izan da, proposamena aurkeztu den garaian indarrean zegoen hirigintza-araudiaren arabera.

- Hirigintza hitzarmenak.

Materialki hirigintza-hitzarmenen erregistro bereizi eta independenterik ez badago ere, haiei buruzko eta haiek kasuko dokumentazioarekin duten loturari buruzko prozedura informatiko bat badago.

Erregistratuta eta artxibatuta 2007a baino lehenagoko sei hitzarmen eta 2012an onetsitako zazpigarrena daude. Horiek guztien eta bakoitzaren onespena NAOn argitaratu da.

- Lurzoruaren udal ondarea.

Udalak ez du ondasunen inbentariarik –halako izaerarekin, atxikia eta berezita–, ez eta lurzoruaren udal ondarearen erregistrorik ere, nahiz eta atal hori aurreikusita egon udal inbentariotan.

Gomendatzen dugu erregistroa eta lurzoruaren udal ondarea bera ezartzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarri bezala.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak Leringo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruz egin duen auditoriako behin-behineko txostenari dagokionez, udal honen gobernu-taldeak, alkateak eta PDLko (Leringo Plataforma) hiru zinegotzik osatuak, interesa du hartan honako eranskin hau gehitu dadin.

Lehenengo, eskerrak eman nahi dizkiegu Ganberako teknikariei gobernu-talde honek egindako eskaerari erantzunez egin duten lanarengatik.

Bigarrenik, Kontuen Ganberari adierazi nahi diogu ados gaudela 2016ko behin-behineko txostenean jasotako datuekin, zeinek Leringo Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa islatzen baitute.

Guretzat —2015eko ekainean iritsi ginen udal gobernura— oso garrantzitsua da txosten horretan ager dadila aurtengo urtarrilaren 1ean zor bizia edo finantzarioa 1.317.333 eurokoa zela, eta epe laburreko zorra (hornitzaileak eta abar) 564.386 eurokoa. Horrenbestez, guztizko zorra, data horretan, 1.880.000 eurokoa zen. Gainera, DIRUZAINZAKO GERAKIN NEGATIBOA 313.483 eurokoa zen. Ekitaldi honetan, aurreko ekitaldietako ordainketak egin dira, 340 euro baino gehiago egiten dutenak.

Halaber, nabarmendu nahi dugu udal gobernuan aldaketa izan aurreko 2015eko hilabeteetan, 2014ko ekitaldiko hornitzaileentzako ordainketa garrantzitsuak egin zirela, eta 2015eko data zuen baina aurreko urteetan egindako lanei zegokien faktura garrantzitsuren bat onartu eta ordaindu ere egin zirela. Halaber, ordainketa garrantzitsuak geroratu eta hitzartu ziren: horietako bat Tracasarekin, Herri-lurren Digitalizazio Programa ordaintzeko. Bereziki aipatu nahi dugu Lerin-Cárcar linea elektrikoari dagokion ordainketa-geroratzea, 90.000 euro ingurukoa, zeinak 2016eko urrira arteko hilabetetan ordaindu behar baita; izan ere haren kostuak ia ehuneko 100 finantzatuta zegoen.

Azkenik, zorpetzea ehuneko 80 ingurukoa dela eta hori handitzeko aukera dagoela aipatu badigute ere, esan beharra dago ezen kontuan hartzen ez badira arazte-giko obrak direla eta sartu den 200.000 euro inguruko kopurua kontuan hartu gabe, portzentajea nabarmen handitzen dela. Nolanahi ere, une honetan, diru-sarrera gehiago sortzeko edo gastuak gutxitzeko ahalmena nahiko txikia da; hori dela eta, ez dugu uste oso gomendagarria denik zorpetzea handitzea.

Espero dugu eranskin hau txostenari gehitu diezaiozuen, zeren eta guretzat, gobernu-taldea garen aldetik, oso garrantzitsua baita gure kudeaketa definitzea eta udal gobernura iritsi ginen unean aurkitu genuen kontuen egoeratik bereiztea.

2016ko urria

Leringo alkatea: Consuelo Ochoa Resano

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Leringo alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta behin-behineko txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

